# EUSKARA ARLOA

# 2017

# MEMORIA

euskara gozatu
EIBARKO UDALA

# AURKIBIDEA

**00. ANTOLAKETA OROKORRA**

01. Planak
02. Batzorde Aholkulariak
03. Antolaketa
04. Aurrekontua

**01. BARNE NORMALIZAZIOA**

01. Lan-mahaia
02. Kudeaketa Plana
03. Sailetako Planak
04. Udaltzaingorako Plana
05. Plangintzaldi amaierako ebaluazioa
06. Trebakuntza-saioak
07. Zuzenketa-aholkularitza
08. Estandarizazioa
09. Ebaluatzaile Bikain Ziurtagiria
10. Lanpostuei Hizkuntza Eskakizuna ezarri
11. Langileen eskolaratzea
12. HE akreditazio probak
13. Langileen harrera
14. Hizkuntza-irizpideak kalea erabiltzeko baimenetan
15. Sailetako hizkuntza
16. Batzordeetako hizkuntza
17. Kontratuen jarraipena
18. Diru-laguntzen jarraipena
19. Ordenantzaren jarraipena
20. Eskuliburua 2017
21. Erregular irudiaren erabilera
22. Euskararen eguna: ahobiziak eta belarriprestak

## 02. EUSKARAREN SUSTAPENERAKO EKINTZA PLANA

01. Zorionak diptikoa
02. Euskarazko Produktuen katalogoa
03. Hazi Hezi Aldizkariaren banaketa
04. Guraso tailerrak bularretik mintzora
05. Jira Bueltan betiko 50 kanta eta jolas
06. Kalian Jolasian
07. HH eta LHko ikastetxeekin lankidetza bilerak
08. DBH, Batxilergoa eta LHko Ikastetxeekin lankidetza bilerak
09. Antzezlanetarako sarrerak oparitan
10. Gu ere bertsotan 2016-2017
11. Umeen bertso jaialdiak
12. Tramankuluak ikasgelan
13. Euskara Zine Aretoetara 2016-2017
14. Ongi Etorri Euskarara
15. Txikitasunean haundi motibazio saioak DBH1
16. Txikitasunean haundi motibazio saioak DBH3
17. Zergatik ez motibazio saioak batxilergoa
18. Gaztezulo aldizkarirako harpidetza kanpaina
19. Bularretik mintzora
20. Bagabigahiga emanaldia
21. Euskalduntze kanpaina bereziak 2016-2017
22. Gurasoak ere eskolara egitasmoa 2016-2017
23. Euskaltegien lehiaketa: Argazki digital lehiaketa
24. Filmazpit
25. Sentsibilizazio saioak aisialdi eta kiroletako begiraleentzat
26. Multikirolak 2016/2017
27. Korrika
28. Transmisio mintegia
29. Euskararen Eguna 2017
30. Eibarko Euskara.eus

31. Juan San Martin beka 2017

32. Hitzaldia: Itzalitako kalabazaren berpiztea

33. UEU Diru-laguntza deialdia

34. Euskara Diru-laguntza izendunak

**03. AKEBAI**

01. Akekideen erregistroa

02. Batzorde Teknikoa (behin-behinekoa)

03. Diskurtsoa, marka, logoa, izena

04. Aurkezpen ekitaldia (Martxoko Batzarra)

05. Guinness ekitaldia

06. Eratze Batzarra (Iraileko Batzarra)

07. Kudeaketa Plana 2017-2018

08. Ekipoa

09. Ekitaldiak Mahaia (Harremanak)

10. Kirol Mahaia

11. Komunikazio Mahaia

12. Kultura Mahaia

13. Transmisio Mahaia

14. Euskararen Eguna

15. Euskararen Agenda

**04. UDAL EUSKALTEGIA**

01. Plantila

02. Eskaintza

03. Matrikula epeak eta egutegia

04. Tasak eta tarifa bereziak

05. Taldeak, orduak eta ikasle kopurua

06. Ikaslearen profila

07. HABEren aztertzaileak

08. Propaganda Batzordea

09. Kanpo ekintzak

10. Liburutegi zerbitzua

IZENBURUA: <u>**EUSKARA ARLOAREN PLANAK**</u>

**DESKRIBAPENA**: Euskara Arloak honako plan hauek ditu indarrean:

- ESEP Euskararen  Sustapenerako Ekintza Plana 2014-2017
- Barne Erabilera Plana 2014-2017
- Eibarko Hiria, Euskararen Plan Estrategikoa 2016-2025 (AKEBAI)
- Udal Euskaltegiaren 2016-2017 ikasturteko plana



**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Euskara Arloaren aurrekontu osoa

**BALORAZIOA:**

ESEP eta Barne Erabilera planaren azken urtea izan da. Barne Erabilera planaren balorazio osoa egin da Eusko Jaurlaritzaren gomendioei jarraituta.

ESEPen kasuan ez da balorazio berezirik egin, AKEBAI martxan jartzeko egin zelako.

Udal euskaltegiak ikasturtekako plana eta memoria egiten du.

**IZENBURUA**: **BATZORDE AHOLKULARIAK**

**DESKRIBAPENA**: Euskara Arloak indarrean dituen planen jarraipena bi batzorde aholkularitan egiten da:



**Euskara Batzordea:**

- Patxi Lejardi, presidentea.
- Patricia Arrizabalaga, zinegotzia
- Igone Lamarain, zinegotzia
- Eva Juez, zinegotzia
- M. Jesus Aguirre, zinegotzia
- Sorkunde Juaristi, Udal Euskaltegiko zuzendaria
- Junkal Txurruka, idazkaria

Hamabostean behin biltzen da, asteartean 12:30ean.

ESEP eta AKEBAIko gaien jarraipena egiten da. Udal Euskaltegiaren funtzionamenduaren jarraipena ere egiten da.

**ENBA:**

- Patxi Lejardi, Batzordeburua
- Patricia Arrizabalaga, zinegotzia
- Igone Lamarain, zinegotzia
- Eva Juez, zinegotzia
- M. Jesus Aguirre, zinegotzia
- Ubaldo Ortiz, Langileen batzordearen ordezkaria
- Iratxe Picaza, Langileria eta Antolamendu saileko arduraduna
- Karmen Bikuña, hizkuntza normalizatzailea
- Ane Maite Irusta, formazio teknikaria
- Junkal Txurruka, Idazkaria

Ez dauka maiztasun zehatzik, baina urtean 3-4 batzar egiten dira, astearteetan 12:30ean.

Barne Erabilera planaren jarraipena egiten da.

**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne baliabideak eta zinegotzien dietak

**BALORAZIOA:**

**Euskara Batzordea:**

20 batzorde egin dira, 79 gai landu dira.

**ENBA**

6 batzorde egin dira, 32 gai landu dira.

IZENBURUA: <u>**EUSKARA ARLOAREN ANTOLAKETA**</u>

**DESKRIBAPENA**: Euskara Arloa bi zerbitzutan banatuta dago:

Euskara zerbitzua eta Udal Euskaltegia. Guztira 12 lagun gaude.



| Kargua | Izena | Oharrak |
|---|---|---|
| Arloko Zuzendaria eta euskara teknikaria | Junkal Txurruka | |
| Barne normalizatzailea | Karmen Bikuña | |
| Trebatzaile/ Itzultzaile | Nerea Azkarate | Itzulpen zerbitzurako lanean |
| Euskara Formakuntza | Ane Irusta | Pertsonal sailerako lanean |
| AKEBAI dinamizatzailea | Idoia Argoitia | |
| Euskaltegiko zuzendaria | Sorkunde Juaristi | |
| Idazkari Akademikoa | Arantza Iriondo | |
| Irakasleak | Nerea Beitia | |
| | Itziar Garitagoitia | Egun erdiz lanean |
| | Xabier Gezuraga | |
| | Jon Sasiain | |
| | Elena Landaluze | Aldi baterako egun erdiz |
| | Idurre Lekuona | Aldi baterako egun erdiz |
| | Axun Urtzelai | Aldi baterako egun erdiz martxo arte. |
| Administraria | Arantzazu Barrutia | |

**EPEA**: 2017

**GASTUA**: 562.531,83 €

**BALORAZIOA:**

Udal euskaltegirako bi irakasle kontratatu behar izan dira egun erdiz, guraso taldeetan klaseak emateko.

IZENBURUA: <u>**EUSKARA ARLOAREN AURREKONTUA**</u>

**DESKRIBAPENA**: Euskara Arloa bi zerbitzutan banatuta dago:



EUSKARA ZERBITZUA

| KONTUSAILA | AURREKONTUA | GASTUA | OHARRAK |
|---|---|---|---|
| Oinarrizko ordainketak | 39.127,04 € | 18.417,14 € | |
| Beste osagarri batzuk | 49.891,27 € | 33.323,92 € | |
| Gizarte Segurantza | 21.737,41 € | 11.343,60 € | |
| Elkarkidetzaren kuotak | 2.788,58 € | 3.791,95 € | |
| | | 66.876,61 € | |
| Informazio-prozesuetarako ekipoak | 824,00 € | 875,05 € | |
| Argitalpenak, publizitatea eta propaganda | 6.500,00 € | 5.977,48 € | |
| Bilera eta Hitzaldiak | 3.000,00 € | 2.626,75 € | |
| Kontratu soziokulturalak | 32.000,00 € | 32.475,09 € | |
| Plan Estrategikoa garatzeko | 48.000,00 € | 44.561,82 € | |
| Pertsonalaren dietak, garraioa eta lekualdaketa | 100,00 € | 14,20 € | |
| Familiei | 10.000,00 € | 374,50 € | JSM beka hutsik geratu da 9.000€ |
| Irabazizko xederik gabeko erakundeei | 3.121,00 € | 3.121,00 € | |
| Entitateei egiten zaizkien trasf. Lankidetza hitzarm. | 154.349,00 € | 154.349,00 € | |
| | 257.894,00 € | 244.374,41€ | |
| Guztira: | 371.438,30 € | 311.251,02 € | |

EUSKALTEGIA

| KONTUSAILA | AURREKONTUA | GASTUA | OHARRAK |
|---|---|---|---|
| Oinarrizko ordainketak | 171.737,68 € | 177.907,05 € | |
| Beste osagarri batzuk | 176.085,71 € | 237.401,21 € | |
| Gizarte Segurantza | 90.009,80 € | 108.190,06 € | |
| Elkarkidetzaren kuotak | 11.154,34 € | 33.446,40 € | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Eraikinak eta bestelako eraikuntzak | 300,00 € | 0,00 € | |
| Bestelako ibilgetu materiala | 300,00 € | 127,00 € | |
| Bestelako hornidurak | 2.000,00 € | 942,16 € | |
| Argitalpenak, publizitatea eta propaganda | 3.500,00 € | 2.903,89 € | |
| Beste hainbat gastu | 2.000,00 € | 814,53 € | |
| Pertsonalaren dietak, garraioa eta lekualdaketa | 100,00 € | 625,08 € | |
| Guztira: | 457.187,53 € | 562.357,38 € | |

**EPEA**: 2017

**GASTUA**:

**BALORAZIOA:**

**IZENBURUA**: **LAN-MAHAIA**

**DESKRIBAPENA**: Udal-sailetako ordezkariek osatutako mahai teknikoa da. Helburua: Euskara planaren garapenaren jarraipena egitea sailka; hartu beharreko neurriak proposatzea, lehentasunak zehaztea, eta aurrera eramango diren normalizazio-ekintzak adostea, ENBAri proposatzeko.



**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

Partaideak izan dira: Antonia Moral (Obrak); Maider Pagey (Liburutegia); Eli Moreno (Diruzaintza); Ane Irusta, Alaitz Olano eta Pedro Irusta (Pertsonala eta Antolamendua); Amaia Eizagirre edo Ainhize Ortuondo (Udaltzaingoa); Encarna Martin (Gizartekintza); Sinda Rivas (Hirigintza); Arrate Eraso eta Arantza Garai (Kontuhartzailetza); Iker L. de Viñaspre (Ekonomia); Begoña Dorronsoro (Alkatetza); Itziar Onaindia (Zerbitzuak); Sorkunde Juaristi, Junkal Txurruka eta Karmen Bikuña (Euskara); Ander Martin (Langile komitea/Brigada).

Sei batzar egin dira urtean zehar, eta asistentzia %70ekoa izan da.

Lan-mahaiaren bileretan pisu handia izan du informazioa emateak. Euskara arlotik prestatutako kudeaketa-plana azaldu da, berritutako eskuliburua aurkeztu da, eta sail eta zerbitzuetan abian jarritako egitasmoen berri eman da. Horrez gain, sustatu da sailetan mikroplanak egitea. Partaideekin batera egin da ordenantzaren eta planaren jarraipena, haiek lagundu baitute datu-bilketan. Beste eginkizun bat izan da proposatutako ekimenen inguruko ideak eta iradokizunak partekatzea eta adostasuna bilatzea. Batzar hauen helburu nagusietako bat da partaideak sentsibilizatzea eta motibatzea, eta emandako informazioaren transmititzaileak izatea.

**IZENBURUA**: **KUDEAKETA-PLANA**

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko planari dagokion 2017ko kudeaketa-plana.



**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

Diseinatutako kudeaketa-planean 40 ekintza identifikatu ditugu multzo hauetan sailkatuta:

- Gaitasun: ikasi eta trebatu
- Sentsibilizatu langileak eta herritarrak
- Erabili:
  - Barruan
  - Sareak sortu
  - kanpoan
- Baliabideak eskaini

Horiez gain, erronka eta egitasmo nagusiak zehaztu ditugu.

Guztien berri eman dugu ENBA batzordean eta Euskararen Lan-mahaian.

Ekintza eta helburuen betetze-mailaren jarraipena egin eta memoria osatu da.

Ekintzen %70 bete dugu. Herritarrak sentsibilizatzeko ekintzetan gelditu zaizkigu batzuk bete gabe (Erregular kanpainako irudia) eta beste administrazio batzuekiko harremanetan euskararen erabilera areagotzekoak. Informatika-tresnen euskarazko bertsioen erabilera sustatzeari dagokionez, gutxi aurreratu dugu.

**IZENBURUA**: **SAILETAKO PLANAK**

**DESKRIBAPENA**: 2017 urterako sailez sail planak egin, helburuak eta ekintzak zehaztu eta jarraipena egin.



**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

Sail edo arlo hauek izan dute plana eginda 2017an:

- Antolaketa eta langileria
- Ekonomia arloa
- Diruzaintza
- Hirigintza
- Obrak
- Zerbitzuak
- Udaltzaingoa
- Liburutegia
- Gizartekintza
- Musika eskola
- Kirol patronatua

Urte hasieran egin da plana, aurreko urtekoaren balorazioa egin ondoren. Plana egitea euskararen lan-mahaian sustatzen da eta bertan ematen da horren berri.

Ekainean V. Plangintzaldiaren amaierako ebaluaziorako bildutako datuetatik atera dira sail bakoitzari dagozkion erabilera-datuak eta haien berri eman.

Urte amaierako ebaluazioa galdetegi bitartez lortzen ditugun datuekin egingo da.

**IZENBURUA**: **UDALTZAINGORAKO PLANA**

**DESKRIBAPENA**: Udaltzaingoan esku hartze berezia egin da: euskararen erabilera areagotzeko trebakuntza eta sentsibilizazioa. Kontuan hartu da sail handia dela eta herritarrekin harreman handia, zuzena eta hurbila dutela; beraz, oso talde estrategikoa da.




**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

Zenbait fase izan ditu planak 2017an zehar:

- Diagnostikoa: agente ia guztiek (42k) erantzun diote galdetegi bati.
- Plangintza: plana diseinatu da. Planak hiru atal ditu:
    - Sentsibilizazio-motibazioa
    - Trebakuntza
    - Ohiturak aldatzeko dinamika
- Sentsibilizazio-saio bat egin da. 13 udaltzainek hartu dute parte (Ordurarte trebakuntza-saioetan parte hartu gabekoak).
- Trebakuntza: sentsibilizazio-saioan parte hartu dutenetako 12k izena eman dute trebakuntza-saioetarako. Azaroan hasi dira klaseak; 2018ko otsailean amaituko dute.

**IZENBURUA**: **PLANGINTZALDI AMAIERAKO EBALUAZIOA**

**DESKRIBAPENA**: 2017 urtea Eibarko udalean euskararen erabilera normalizatzeko V. Plangintzaldiaren azkena izan denez, plangintzaldi amaierako ebaluazio kualitatiboa eta kuantitatiboa egiten jardun dugu.



**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

Ekainean datuak biltzen hasi ginen, aurreko plangintzaldietako metodologia erabiliz. Hona lortutako datu batzuk:

Telefono bidezko harremanetan udal-langileek lehen hitza erabiltzen dute elkarrizketen % 93an. Euskaraz hasten dira berbetan herritarren % 44. Elkarrizketen % 39 euskaraz izaten dira herritarrekin.

Leihatilako harremanetan, lehen hitza euskaraz egiten dute langileek elkarrizketen % 63an. Artatuen % 42k egiten dute euskaraz lehen hitza. Elkarrizketen %36 izan dira euskaraz.

Informazio gehiago eta zehatzagoa hemen.

Ebaluazio kualitatiboa ere egin dugu. Ikusi hemen.

Gure asmoa zen abenduan falta zitzaizkigun datuak biltzea, baina HPStik datuak biltzeko metodologia aldaketaren berri izan genuen. Proposatu zuten galdetegia erabiltzea egoeraren diagnostikoa egiteko; beraz, 2018ko lehen hilabeteetan inkesta bitartez batuko dugu informazioa.

Bestalde, 2017ko ekainean eta abenduan Euskararen ordenantzaren jarraipena ere egin dugu.

**IZENBURUA**: **TREBAKUNTZA-SAIOAK**

**DESKRIBAPENA**: udaletxeko langileentzako trebakuntza-saioak eskaini, taldeak egin eta eman.




**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

Uda aurretik 5 talde aritu dira:

- Pegorako taldea (2016ko udazkenean hasita)
- Udaltzainen taldea (bi ordutegitan) (2016ko udazkenean hasita)
- Hainbat sailetako langileak bilduta beste 3 talde

37 lagun aritu dira eta ordu beteko 15 saio izan dituzte eta bakarkako 4 saio.
Talde guztien bataz besteko asistentzia:

| Taldean | Tutoretzak bakarka |
|---|---|
| % 73 | % 68 |

Udazkenean, azarotik aurrera, udaltzainen beste talde bat hasi da, bi ordutegitan. 2018ko otsailean amaituko dute.

**IZENBURUA**: **ZUZENKETA-AHOLKULARITZA**

**DESKRIBAPENA**: Udal-sailetako langileei testuak euskaraz sortzen laguntzea, haiek idatzitakoak zuzentzea eta euskaraz lan egiteko lagungarriak diren baliabideen berri ematea.




**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

Zuzenketa zerbitzua

Zuzendu edo itzultzen lagundutako barruko testuak 251 izan dira; kanpokoak 8.

Zuzenketak: Esku artean izandako testuen % 58.

Itzulpenak: %42

Luzerari dagokionez, batzuk luze samarrak izan badira ere, gehienak testu zatiak edo esaldi solteak izan dira.

26 sail ezberdinetako testuak gainbegiratu dira.

Aholkularitza eta euskaraz lan egiteko baliabideen gaineko informazioa

Informazio hori gehienetan e-maila bitartez eskuratu zaie langileei.

Honako hauen inguruko mezuak bidali dira:

- Euskara ikastaroak euskaltegian
- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdiak
- Euskalbar tresna-barra
- Irakurgaiak abenduan
- Euskal produktuen katalogoa
- Hilero euskarazko ekitaldien agenda
- Beharginendako eskuliburuko irizpideak

IZENBURUA: <u>**ESTANDARIZAZIOA**</u>

**DESKRIBAPENA:** Badira oraindik ere erdara hutsean erabiltzen diren barruko dokumentuak. Horiek identifikatu eta estandarizatzen ditugu.




**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

Zenbait kasutan prozeduren sinplifikazioarekin batera egin da estandarizazio-lana; beste batzuetan, beharraren arabera.

Kontratazioen eta diru-laguntzen unitateak erabiltzen dituen 13 dokumentu estandarizatu dira: txostenak, jakinarazpenak, ebazpenak eta proposamenak.

2017an zehar balidatu diren prozeduretako dokumentuen %90etik gora ele bietan edo euskara hutsean egin dira.

IZENBURUA: **<u>EBALUATZAILE BIKAIN ZIURTAGIRIA</u>**

**DESKRIBAPENA**: Euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa egiaztatzen duen Bikain ziurtagiria eskuratzeko kanpo-ebaluazioetan hartzen dugu parte. Berebiziko garrantzia dauka eredua ondo ezagutzeak; izan ere, euskararen barne-erabilera normalizatzeko hurrengo plangintzaldiko plan estrategikoa Bikain egitura kontuan hartuta, harekin lerrokatuta egin beharko baita.

**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

Aurten eredua aldatu egin da; eta kanpo-ebaluazioan parte hartuta eta egindako eguneratze- eta prestakuntza-saioetan, 2017an argitaratu den dekretu berriak dakartzan aldaketak eta berrikuntzak ezagutu ditugu.

2017ko ekainaren 5ean argitaratu da Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria arautzen duen dekretua.

2017ko uztailaren 10ean HPSkoekin egindako bileran azaldu zaizkigu, bai Bikainen berrikuntzak, bai V. Plangintzaldiaren ebaluazioa egiteko modua zein plan berria.

2017ko irailaren 27an eguneratze- eta prestakuntza-saioa izan dugu.

2017ko azaroaren 15 eta 22an beste enpresa bat ebaluatzeko bisitak egin eta txostena adostu dugu gainontzeko ebaluatzaileekin.

**IZENBURUA**: **LANPOSTUEI HIZKUNTZA ESKAKIZUNA EZARRI**

**DESKRIBAPENA**: Udaleko lanpostuei, brigadakoei izan ezik, egiteko eta funtzioen araberako hizkuntza eskakizuna ezarri behar zaie. Horretarako protokolo bat dago onartua.

Ikusi **HEMEN** protokoloa.



**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

2017an 20 lanposturi ezarri zaie HE: 4 lanpostu RPTkoak dira, eta beste 16ak, LANBIDEren bidez egin diren aldi baterako kontratazioen lanpostuetakoak. Protokoloa ondo bete da 18 kasutan, eta akatsak egon dira 2 kasutan (Garapen ekonomikoa, Berrikuntza eta Enplegu saileko Buru Tekniko lanpostuan eta Administrari lanpostuan).

**IZENBURUA**: **LANGILEEN ESKOLARATZEA**

**DESKRIBAPENA**: udaletxeko langileek eta fundazio eta patronatoetakoek euskalduntze ikastaroak IVAPen edo udalaren kontura egiteko aukera izaten dute.

Horretarako ENBAn onartutako **araudia** bete behar da



**EPEA**: 2016-2017 ikasturtea

**GASTUA**:

**BALORAZIOA:**

2016-2017 ikasturtean 31 langile matrikulatu dira: hogeita sei langile IVAPen kontura, hiru langile Udalaren kontura, eta beste biak, euren kontura. Ikasturtean zehar 10 baja izan dira. Baja izan ez diren kasuetan, orokorrean, langileen jarrera/aprobetxamendua ona edo oso ona izan da.

Ikusi **hemen** informazio zehaztua.

**IZENBURUA**: **HE AKREDITAZIO PROBAK**

**DESKRIBAPENA**: udaletxeko eta fundazio eta patronatoetako langileak IVAPek egiten dituen hizkuntza probetara joateko tramitazioa egiten da urtean bi deialditan.



**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

Lehenengo deialdian 20 eskaera bidali dira IVAPera. Horietatik 16 langile aurkeztu dira, eta emaitzak honako hauek izan dira:

- GAI: 6 (1. HE:1; 2. HE:2; 3. HE:3)
- EZ GAI: 10

Bigarren deialdian, 12 eskaera bidali dira. Deialdi honetan, 11 langile aurkeztu dira, eta emaitzak honako hauek izan dira:

- GAI: 1 (3. HE)
- EZ GAI: 10

**IZENBURUA**: **LANGILEEN HARRERA**

**DESKRIBAPENA**: Langile berri bat udalerako lanean hasten denean, kontratua sinatzean Beharginendako eskuliburua ematen zaio eta azaldu egiten zaio zeintzuk diren udalean lanean diharduen bitartean hizkuntzari dagokionean izan behar duen jokabidea.

Ikusi **HEMEN** eskuliburua



**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

2017an 38 langileri egin zaio harrera.

Horretaz gain eskuliburuko irizpideak barneko e-maila bidez bidali dira.

**IZENBURUA**: **<u>HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK KALEA ERABILTZEKO BAIMENETAN</u>**

**DESKRIBAPENA**: Bide publikoa okupatzeko edo/eta materialak lagatzeko eskaera-orrian betebeharreko hizkuntza-irizpideak txertatzea.




**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

2016an izandako kexa batzuk zirela medio, eta kontuan hartuta Euskararen ordenantzan jasotakoa, proposatu da Euskara sailetik kale edo bide publikoa okupatzeko edo/eta materialak lagatzeko eskaera-orriaren atzealdean, oharren atalean, honako paragrafo hau sartzea:

*Jendaurrean jartzen diren idatzizko ohar, seinalizazio eta abar euskaraz eta gaztelaniaz jarri behar dira. Mikrofonotik edota megafoniatik ematen diren mezu orokorrak euskaraz eta gaztelaniaz izan beharko dira. Publiko euskal hiztunari zuzendutako ekitaldia bada, euskara hutsean egin daiteke.*

Prozedura aztertze-bidean da, eta Ordenantza eta eskaera-orria aldatzeko asmoa dago.

**IZENBURUA**: **<u>SAILETAKO HIZKUNTZA</u>**

**DESKRIBAPENA**: Euskarazko sailak izendatzeko proposamena egin eta baliabideak eskaini.

**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

Bi zerbitzu hauetan proposatu da lan-hizkuntza euskara izatea: Komunikazioa eta Liburutegia.

Bietan sustatu da bilerak euskaraz egitea eta kideen arteko harremanetan euskararen erabilera areagotzea. Horretarako, Eusle metodologia jarri da martxan. Horrez gain, udal-barruan egiten diren tramiteak (baimen- eta lizentzia-eskaerak, formazio-eskaerak, erosketa-eskaerak eta abar) euskaraz egiteko konpromisoa hartu dute. Baliabide informatikoei dagokienez, Komunikazioko bik Officea eta sistema eragilea euskaraz jartzea erabaki dute. Liburutegian ere bik adierazi dute asmoa, baina ez da oraindik gauzatu.

Jarraipena izango du 2018an zehar.

**IZENBURUA**: **BATZORDEETAKO HIZKUNTZA**

**DESKRIBAPENA**: ENBA batzordetik proposamena egiten zaie batzorde aholkulari eta lan-batzordeei erabiltzen duten hizkuntzaren jarraipena egin dezaten 2017ko uztailean eta abenduan.

2016an bidali zen diktamena ENBAtik adostu zezaten zein hizkuntza erabiliko zuten nagusiki batzordeetan (15 batzordetara bidali zen proposamena, 11k adostu zuten lanerako hizkuntza)

- 5 batzordek erabaki zuten **euskara** izango zela **hizkuntza nagusia**
- Batek erabaki zuen lan hizkuntza **ele biak izatea**
- 5 batzordek erabaki zuten **gaztelania** izango zela hizkuntza nagusia
- 4 batzordek ez zuten erantzun
  (Informazio gehiago hemen)



**EPEA**: 2017ko uztailean eta abenduan

**GASTUA**: Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

**Uztaileko jarraipena**

15 batzorderi bidali zaie uztailean jarraipena egiteko eskaera eta 9k erantzun dute. Orokorrean adostutakoa betetzen da. Ez betetze bakarra gertatzen da: gaztelania nagusi den batzarretan sarrera eta laburpena ez da euskaraz egiten.

**Abenduko jarraipena**

7 batzordetako jarraipena jaso da, eta ez betetzeen kasuetan (gaztelania nagusi den batzarretan sarrera eta laburpena ez da euskaraz egiten), idazkariei ohartarazi zaie eta kasu batzuetan sarreran eta irteerak euskaraz egiteko konpromisoa hartu dute.

Informazio gehiago hemen (batzordeetako hizkuntza orria)

**IZENBURUA**: **KONTRATUEN JARRAIPENA**

**DESKRIBAPENA**: Udalak egiten dituen kontratuetan jartzen diren hizkuntza-irizpideen betetzearen jarraipena egiten da.

Eibarko udaleko *Kontratatzailearen profila* ataleko eta *Kontratuen erregistroa* web orriko informazioa erabiltzen dugu kontratuen berri izateko. Zenbaitetan kontratuen ardura dutenak jartzen dira gurekin harremanetan zer-nolako hizkuntza-irizpideak jarri behar dituzten aztertzeko.

Kontratuak *Kontratuzain* aplikazio informatikoan sartzen ditugu eta bertan zehazten dugu, kontratu mota eta luzeraren arabera, zeintzuen jarraipena egingo dugun eta noiz.

Jarraipena egiteko orduan, kontratuaren arduradunari galdetzen diogu jarritako irizpideen betatze-mailaren inguruan.




**EPEA**: 2017

**GASTUA**: 130 € (Kontratuzain aplikazioa) eta barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

40 kontratu egin dira: zerbitzu-kontratuak (13), zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak (4), Obra-kontratuak (10), hornidura-kontratuak (10) eta pribatuak (3).

8 kontraturen jarraipena egin dugu; denak zerbitzu-kontratuak eta zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak. Zehaztasun gehiago hemen.

Beste batzuen jarraipena 2018an zehar egingo da, bai orain sartu direlako indarrean, bai horrela zehaztuta daukagulako.

Irizpideen betetze-maila:

| | Betetze-maila | Batez beste * | Lanp. betetzeko | Lan. beteta | Lanpostuak |
|---|---|---|---|---|---|
| Zerbitzu kontratuak (5) | %83.78 | 3.47 | 18 | 17 | %94.44 |
| Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak | %87.50 | 3.25 | 24 | 14 | %58.33 |

*batez besteko maila, 1etik 5erako eskalan; 1 dena gaztelaniaz, 5 dena euskaraz.

**IZENBURUA**: <u>**DIRU-LAGUNTZEN JARRAIPENA**</u>

**DESKRIBAPENA**: Udalak ematen dituen diru-laguntzetan hizkuntza-Irizpideak jartzen diren jarraitzen dugu.




**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

90 diru-laguntzen jarraipena egin dugu.

%99 ele bietan argitaratu dira.

Hizkuntza-baldintzak jarri dira diru-laguntza izendunen %91n eta norgehiagoka araubidez emandakoen %87an.

Ez da hizkuntza baldintzarik jarri, ez ebaluazio bakoiztu bidez emandakoetan, ez Europatik datozen diru-laguntzen bidez emandakoetan, ez alderdi politikoei emandakoetan.

**IZENBURUA**: **ORDENANTZAREN JARRAIPENA**

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak Euskararen Ordenantza du indarrean 2016ko ekainetik. Ordenantza horren betetze-mailaren jarraipena egiten da ENBA eta Euskara Batzordean. ENBAn udal barruko eta erakunde autonomoei dagokiena eta Euskara Batzordean udalerriko neurriei dagokiena.

**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

Ordenantzaren jarraipena egiteko sistema bat ezarri da, zeinaren bitartez zehaztu diren adierazleak, epeak eta arduradunak.

Bi unetan ezarri da neurketa: zenbait adierazle ekainean eta besteak abenduan.

Egindako jarraipena kontsultatzeko 2017ko jarraipena.

**IZENBURUA**: **ESKULIBURUA 2017**

**DESKRIBAPENA**: Udal-Beharginendako eskuliburuan argibideak eta jarraibideak jasotzen ditugu gure lanean hizkuntzak kudeatzeko moduaz. Eskuliburua aldian behin aztertu, berritu, eguneratu eta egokitu behar izaten da. 2017an, Euskararen Ordenantzarekin alderatu beharra egon da eta hartara egokitu dira eskuliburu zaharrean jasotako hizkuntza irizpideak.




**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

Udal-Beharginendako eskuliburua berritu dugu: beste era batera antolatu dugu; aurkibidea jarri diogu; erantsi diogu itzulpen, zuzenketa eta aholkularitza zerbitzuak behar izanez gero nora jo; eta eskuliburuaren amaieran irizpideen laburpen-taula ere gehitu diogu.

Berritzeko, Eibarko udalaren Euskararen ordenantza eta Bikain modeloaren egitura eta elementuak (EME Erreferentzia Marko Estandarra) hartu ditugu oinarri.

Eskuliburua ikusgai dago G direktorioko 0Orokorra karpetan, euskaraz eta gaztelaniaz.

ENBA batzordean eta Euskararen Lan-mahaian aurkeztu dugu. Eta posta elektronikoren bitartez eta atalez atal aritu gara langileei erakusten.

Langile hasi berriei ere ematen zaie.

IZENBURUA: **ERREGULAR IRUDIAREN ERABILERA**

**DESKRIBAPENA**: Erregular irudiaren erabilera zabaltzea: udalak argitaratzen dituen kartel, foileto, esku-orrietan, kultur agendan irudia jarri; sinadura elektronikoetan sartu; bideoren bat egin langileekin herritarrak guregana euskaraz eginez hurbildu daitezkeela adierazteko…










**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

2016ko herritarrentzako Erregular kanpainako irudia erabili dugu Euskararen egunaren inguruan Ahobizi eta Belarriprest ekimenerako. Irudiaren egileak egokitu du irudia ekimeneko bi protagonistak (ahobiziak eta belarriprestak) identifikatzeko. Irudiekin pegatinak egin ditugu eta ekimenak iraun duen egunetan (azaroak 27, 28 eta 29) erabili ditugu soinean itsatsita jokabide biak bereizteko.

Aurreikusitako gainerako erabilerak ez dira landu. Sinaduretan sartzea komentatu da Komunikazio teknikariarekin, baina ondorioztatu da azterketa sakonagoa egin beharra dagoela sinaduren inguruan, asko baitira ipini beharreko mezu eta logoak (euskara erabiltzeko aukera, ez inprimatu, facebook, twiter eta abarren irudiak), eta horrek mezuak zamatu egiten baititu.

Gainerako sailetako kartel eta abarretan sartzea teknikarien mahaian lantzekoa zen, baina bestelako kontuek izan dute lehentasuna.

**IZENBURUA**: **EUSKARAREN EGUNA: AHOBIZIAK ETA BELARRIPRESTAK**

**DESKRIBAPENA**: Euskararen eguna aitzakia hartuta Ahobizi eta Belarriprest (San Andres bezperak euskaraz, erregular!) ekimena, sentsibilizazioan eta euskararen erabileran eragiteko.




**EPEA**: 2017ko azaroaren 27tik 29ra

**GASTUA**: Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:**

*San Andres bezperak euskaraz, erregular!* izeneko kanpaina egin dugu azaroaren 27tik 29ra.

Euskararen lan-mahaian oniritzia lortuta, kanpaina komunikatu dugu ZTn eta ENBA batzordean. Lan-mahaiko kideak arduratu dira nork bere sailean azaltzeaz.

Esku-orri batzuk prestatu dira kanpaina azaltzeko. Sailetan banatu dira eta baita e-maila bitartez ere.

Partehartzaileak bereizteko (ahobiziak eta belarriprestak), pegatina batzuk egin ditugu Erregular kanpainako irudietan oinarrituta (Jose Antonio Azpilikueta irudiaren egileak egokitu ditu pegatinak).

70 pertsona inguruk hartu dute parte Ahobizi eta Belarriprest kanpainan. Horietatik %85 inguru ahobiziak izan dira.

Arrakasta handiagoa izan du lan-mahaian ordezkaria duten sail eta departamentuetan, eta lehenengo egunean eta bigarrenean.

Kanpaina egunetan mezu elektronikoz gogorarazi da, eta sailez sail ibili gara pegatinak banatzen; ordenagailuetan mezu automatikoa ere azaldu da.

Kanpainaren balorazioa egiteko galdetegia bidali da. Hona emaitzak:

- %80.5ek egin du euskaraz normalean gaztelaniaz egiten duen norbaitekin.
- %85.4ren pertzepzioaren arabera, igarri da euskararen erabileran; hau da, gehiago egin da haien ustez.
- %82.5en ustez, lortu da kanpainaren helburua (hizkuntza-ohituretan eragitea euskaraz gehiago egiteko).
- %92.1i gustatu zaio kanpaina.

**IZENBURUA**: **ZORIONAK DIPTIKOA**

**DESKRIBAPENA**: Eibarren umeak erregistratzen dituzten familiei Pegoran “Zorionak” diptikoa banatzen zaie. Bertan eredu linguistiko desberdineko gurasoei aholkuak ematen zaizkie umeekin eduki behar duten jarrerari buruzkoak.



**EPEA**: 2017 urtea

**GASTUA**: 2016ko aurrekontukoa 907,50€ (3.000 ale)

**BALORAZIOA:**

2017 urtean 211 ume jaio dira, horietatik 117 mutilak izan dira eta 94 neskak.

**IZENBURUA**: <u>**EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA**</u>

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak Eibarko ikastetxeetan San Andres inguruan Euskarazko produktuen katalogoa banatzen du. Katalogo hau Euskal Herri osorako egiten da eta Eibarko udalak ale batzuk erosten ditu.




**EPEA**: 2017ko azaroa

**GASTUA**: 2.171,99 €

**BALORAZIOA:** 2.700 katalogo banatu dira Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan eta 2.000 liburu bereizgarri DBHko ikastetxeen bitartez.

**IZENBURUA**: **HAZI HEZI ALDIZKARIAREN BANAKETA**

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak 2 urteko umeen geletako gurasoei Hazi Hezi aldizkariaren urtebeteko harpidetza oparitan jasotzeko aukera ematen die. Interesatuek izena eman behar dute.

Horretaz gain ume jaioberria erregistratzera doazen familiek Hazi Hezi 0 alea doan jasotzen dute.




**EPEA**: 2017 urtea

**GASTUA**: 825€ harpidetza eta Pegoran 0 alea banatzea 1.280 €

**BALORAZIOA:** 55 gurasok eman dute izena urtebeterako harpidetza doan jasotzeko:

- 5 Aldatzekoak
- 8 San Andresekoak
- 11 La Sallekoak
- 29 Mogelekoak
- 1 Urkizukoa

eta Pegoran 211 familiari banatu zaie 0 alea

**IZENBURUA**: <u>**GURASO TAILERRAK BULARRETIK MINTZORA**</u>

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak ikastetxeekin eta familiekin lankidetzan Galtzagorri elkartearen *BULARRETIK MINTZORA* egitasmoa jarri du martxan. Egitasmo horretan Euskara arloa, udal liburutegia, ikastetxeak eta familiak dira partaide. Egitasmoaren barruan gurasoei zuzendutako tailerrak eta hitzaldiak eskaini dira, euskaraz eta gaztelaniaz.
Helburua haur literaturaren garrantziaz jabetzea eta irakurketa ohiturak etxean sustatzeko familientzako formazioa ematea da.




**DATAK**:

**Otsailak 28, asteartea**, 18:00-20:00 PORTALEko Areto Nagusian
***Haur Literatura ezaguera guztien oinarrian I. Hizlariak***: Juan Kruz Igerabide eta Itziar Zubizarreta. Haur Literaturari buruzkoa, non Literatura unibertsalaren eta gurearen ikuspegi bat lantzen den, eta euskal haur literaturako poesia, kanta, joko eta abarren tradiziozko ereduak ere erakutsiko zaizkizuen

**Martxoak 1,** asteazkena, 18:00-20:00 PORTALEko Areto Nagusian
***Haur Literaturaren garrantzia haurraren garapenean I***. Hizlaria: Juan Carlos Alonso. Haur Literaturak haurraren garapen emozional, intelektual eta afektiboan duen garrantziaz jabetzeko hitzaldia.

**4 de abril** PORTALEA 9:45- 11:45
***La literatura infantil en la base de todo conocimiento*** Juan Kruz Igerabide eta Itziar Zubizarreta.

**5 de abril** ***La importancia de la literatura infantil en el desarrollo de las niñas y niños.*** Juan Carlos Alonso.

**GASTUA**: 1.140€

**BALORAZIOA:** Euskarazko hitzaldietarako 24 lagunek eman zuten izena eta hitzaldietara 17-18 lagun etorri dira.

Gaztelaniazkoetarako izen-ematea egin zen eta 7 lagunek eman zuten izena. Horregatik euskara ikasten ari ziren guraso taldeetakoei egin zitzaien gonbidapen zuzena eta hitzaldiak goizez eman dira euren eskola orduetan.

Lehen hitzaldira 14 lagun etorri ziren eta bigarrenera 8.

Hitzaldietan egon diren gurasoen balorazioa oso ona izan da, gaia oso interesgarria eta hizlariak oso onak. Hitzaldiek 2 ordu luze iraun dute, jendeak galdera eta kezken bitartez parte hartu duelako.

**IZENBURUA**: **<u>JIRA BUELTAN betiko 50 kanta eta jolas</u>**

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak ikastetxeetako LH1 mailako familiei Badiharduguk sortu duen kanta eta jolasen liburuxka-dvda banatu die Horretarako 600 ale inguru erosi ditu, gutxienez bi ikasturtetan banatzeko adina.

Material hori 2017ko Durangoko azokan ere salgai jarri da.




**EPEA**: 2017ko azaroan banatu da

**GASTUA**: 5.721€

**BALORAZIOA:** 270 ale banatu dira LH1 mailako familien artean

**IZENBURUA**: **KALIAN JOLASIAN**

**DESKRIBAPENA**: Kaleko euskarazko jolasak egiten dira Euskal Jaien barruan, Udalak Astixa Animazio Zerbitzuaren bidez ostiral arratsaldean 4-8 urte bitarteko umeentzako.

Egitasmo hau garatzeko Udalak, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolak, Klub Deportiboak eta Eibarko ikastetxe guztiek hartu dute parte, eta jolasen koordinazioaz ASTIXA arduratu da.



**EGUNA**: 2017ko maiatzaren 26a 17:00-19:00

**GASTUA**: Afariketan egitasmoko hitzarmenean sartuta dago

**BALORAZIOA:** Dagoeneko euskal Jaiaren egitarauan finkatuta dagoen ekitaldia da. Familiek badakite eta gustura hartzen dute. Aurten eguraldia lagun izanik ere, aurrekoetan baino familia gutxixeago gerturatu dira. Batzuetan urtebetetze ospakizunen bat ere izaten da eta nabaritu egiten da.
Urtetik urtera gurasoek parte handiagoa hartzen dute jolasetan.

**IZENBURUA**: **HH eta LHko IKASTETXEEKIN LANKIDETZA BILERAK**

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udaleko Euskara sailaren eta HH eta LHko ikastetxeen artean egiten diren bilerak, lankidetzan hainbat egitasmo proposatzeko, sustatzeko, ebaluatzeko.

**DATAK**:

2017/01/24

2017/05/17

2017/05/30

2017/09/26

2017/10/03

**GASTUA**: 0 €

**BALORAZIOA:** Ohikoa urtean 3 bilera egitea izaten da. 2017an AKEBAIren sorrera dela eta bi bilera berezi egin dira HH eta LHko ikastetxeekin. Asistentzia ona izan da.

**IZENBURUA**: **<u>DBH, Batxilergoa eta LHko IKASTETXEEKIN LANKIDETZA BILERAK</u>**

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udaleko Euskara sailaren eta DBH, Batxilergoa eta LHko ikastetxeen artean egiten diren bilerak, lankidetzan hainbat egitasmo proposatzeko, sustatzeko, ebaluatzeko.

**DATAK**:

2017/01/25

2017/05/10

2017/09/27

2017/10/04

**GASTUA**: 0 €

**BALORAZIOA:** Ohikoa urtean 3 bilera egitea izaten da. 2017an AKEBAIren sorrera dela eta bilera berezi bat egin da. Asistentzia ona izan da.

**IZENBURUA**: **ANTZEZLANETARAKO SARRERAK OPARITAN**

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleei euskarazko emanaldietako sarrerak oparitzen dizkie.




**DATAK**:

2017/03/14 Mami Lebrun

2017/03/25 Treblinkarako azken trena

2017/04//06 Jokoz kanpo

2017/10/02 forjarien kanta

2017/10/27 Linbotarren itzalak ate ostean

**GASTUA**: Kultura sailak bere gain hartu du, 370 €.

**BALORAZIOA:** Lehen urtea izan da ekimen hau martxan izan dela. Guztira 37 ikaslek eskatu eta jaso dute Coliseoko euskarazko emanaldiren baterako sarrera oparitan.

**IZENBURUA**: **GU ERE BERTSOTAN 2016-2017**

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen bidez ikastetxe guztietan eskaintzen duen bertsolaritza eta ahozkotasuna lantzeko egitasmoa. Udalak eta ikastetxeek finantzatua. Ikastetxe gehienetan LH5 eta 6 mailetan burutzen da. Egitasmoak ikasturte osoa hartzen du, urrian hasi eta maiatzaren amaieran bukatzen da. Bertsolaritza lantzeko saioa astero izaten dute eskola orduetan, aste batean bertsozale elkarteko irakaslea joaten da gelara eta hurrengo astean tutorearekin lantzen dute.




**EPEA**: 2016-2017 ikasturtea

**GASTUA**: 11.905,90

**BALORAZIOA:** Eibarko Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiek hartu dute parte. Egitasmoa 17 ikastaldetan burutu da. 340 ume inguruk landu dute bertsolaritza. Gipuzkoako bertsozale elkarteak deituta apirilaren 4an jarraipen batzordea egin da. Bertan 5 ikastetxetako ordezkariak, udaleko euskara teknikaria eta bertsozale elkarteko ordezkaria bildu dira. Ikastetxeen balorazioa oso ona da eta Euskara sailarena ere bai. Umeek bertsolaritzaren bitartez umore eta jolas giroan bertsoaren bitartez euskara eta ahozkotasuna lantzen dute. Bertsozale elkarteko irakasleak oso profesionalak dira eta umeekin duten harremana oso egokia da. Ikusi AKTA eta MEMORIA

**IZENBURUA**: <u>**UMEEN BERTSO JAIALDIAK**</u>

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak ikastetxeekin batera Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen bitartez “Gu ere bertsotan” proiektuaren ikasturte amaierako ekitaldia izaten da haurren bertso jaialdia.



**DATAK**:

2017/05/22 Amaña, Iturburu eta La Salleko LHko 5. Mailako ikasleak

2017/05/23 Amaña, Iturburu eta La Salleko LHko 6. Mailako ikasleak

2017/05/25 Arrateko Andra Mari, San Andres, Urkizu eta Aldatzeko ikasleak

**GASTUA**: Coliseoaren erabilera

**BALORAZIOA:** Oso positiboki baloratzen da emanaldi hauek egitea. Umeen ilusioa eta motibazioa oso garrantzitsuak dira saio horietan. Familiek ere umeek ikasturtean landutakoaren emaitzaz gozatzeko aukera izaten dute eta Coliseoa bete egiten da.

**IZENBURUA**: **TRAMANKULUAK IKASGELAN**

**DESKRIBAPENA**: Jose Ramon Soroizek eskaintzen duen emanaldia da. Eibarko Udalak LH 5eko ikasleentzako motibazio-saioak antolatzen ditu. Eskola orduetan izaten da. 5 saio egin dira, lau Portalean eta bestea Iturburun. Udalak finantzatzen du. Helburua da euskaraz gozatzea eta idazteko eta irakurtzeko zaletasuna sustatzea.




**EPEA**:

2017/10/24 11:00 Iturburu

2017/10/25
10:00 Aldatze eta Amaña
11:15 Urkizu eta Arrateko Andra Mari

2017/10/26
10:00 San Andres
11:15 La Salle

**GASTUA**: 1.600 €

**BALORAZIOA:** Portalean egin den emanaldi bakoitzean 50 ume inguru egon dira eta Iturburun 75. Beraz guztira 275 umek hartu dute parte emanaldian eta oso arrakastatsua izan da aurten ere.

IZENBURUA: <u>**EUSKARA ZINE ARETOETARA 2016-2017**</u>

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak ikastetxeei euskarazko zine eskaintza egiten die eskola orduetan. Eskaintza hori TINKO euskara elkartearen bitartez. Udala eta ikastetxeen artean finantzatzen da. Filmak Coliseoan edo Portalean ematen dira 14:45-16:30 bitartean.





**EPEA**:
2017-05-15 KOKO Dragoi Txikia (Coliseo)
2017-04-04 Oker (Coliseo)
2017-03-09 Jostunak (Portalea)
2017-02-09 Yugo & Lala (Coliseo)
2017-01-16 Bram Barrabas (Coliseoa)
2016-11-28 Agur Esatea (Portalea)
2016-11-03 Freddy Igeldegi (Coliseoa)
2016-10-10 Pim & Pom (Portalea)

**GASTUA**: 1.457,50 €

**BALORAZIOA:** TINKOk 8 filma eskini ditu, baina Bram Barrabas ikusteko eskaerik egin ez denez, gainerako 7 filmak eman dira. Aforoa kontuan hartuta 4 filma Coliseoan eman dira eta 3 Portaleko Areto Nagusian. Guztira 1.325 ikusle izan dira. Ikastetxeka honako hau izan da filmen eskaera:

IKASTETXEAK LH:

- San Andres 3 filma
- Aldatze 2 filma
- Amaña 3 filma
- Urkizu 3 filma
- La Salle 2 filma
- Arrateko Andra Mari 1 filma

IKASTETXEAK DBH

- Itzio 2 filma

**IZENBURUA**: <u>**ONGI ETORRI EUSKARARA**</u>

**DESKRIBAPENA**: Eibarrera bizitzera etorritako atzerritarren seme-alabei euskarazko errefortzu saioak ematen zaizkie. Udalak finantzatzen du. Ordu eta laurdeneko bi saio izaten dira astean, Indianokua gaztelekuan. Irakasle lanetan Astirako begiraleek jarduten dute. Egitasmoa ikastetxeekin lankidetzan bideratzen da eta DBHko ikasleei zuzendua dago.

2017ko irailetik aurrera ikastetxean bertan taldeak osatzea bultzatuko da. Eta parte hartu ahal izango dute euskara ulermen maila eskasa duten edozein jatorritako ikasleek. Mogelen hauspoa egitasmoaren barruan eskiniko da.






**EPEA**: 2017ko urtarrilaren 16tik apirilaren 5era (otsailaren 27a ezik Aratosteak eskolan jai) bitartean garatuko da. Astelehenetan eta asteazkenetan elkartuko dira, 17:30etatik 18:45etara 1.go eta 2.TALDEAK Gaztelekuan

2017ko urriaren 23tik abenduaren 21era (Azaroak 1 eta abenduak 6 ezik) bitartean garatuko da. Data hauetan bi talde hartuko dute parte eta J.A. Mogel ikastetxean garatuko dira: 1go taldea: Astelehen-asteazken, 2. taldea: Astearte-osteguna, ordutegia: 15:00etatik 16:15era
INDIANOKUA Urriaren 30etik abenduaren 20ra

14 saio (Azaroak1 eta abenduak 6 jai)

INDIANOKUA  Azaroaren 13tik abenduaren  20ra
11 saio ( Abenduak 6, jai)

**GASTUA**: 5.950 €

**BALORAZIOA:** Urtarriletik apirilera bitartean 2 talde egon dira: hasi berriena eta aurreko urtean ibilitakoena. Lehen taldean 5 lagun ibili dira eta bigarren taldean 4 lagun. Izena emanda ikasle gehiago egon dira, baina ez dira saioetan inoiz azaldu. Ikasle bat kanporatua izan da portaera txarrarengatik. Talde txikiak dira baina asistentzia eta jarrera ona izan dute.

Urritik abendura bitartean 4 talde jarri dira martxan: 2 Mogelen eta 2 gaztelekuan.

**Hauspoa programa**: Mogel –Isasi ikastetxean, Hauspoa programaren barruan garatzen dira euskara saioak.  Astelehenetik ostegunera 15:00etatik 16:15ak arte biltzen dira eskolan bertan, talde bakoitzak 2 saio egiten ditu.  Ikasturte hasieran bertako irakasleek gazteak mailakatu zituzten eta 2 taldeetan banatu;  hauetako asko etorkinak dira, baina badaude bertan jaiotakoak direnak ere.  Guztiak DBHko 1.go mailako ikasleak dira.

**Gaztelekua**: Hasiera batean, nerabe kopurua kontuan izanda, talde bat sortzea aurreikusi genuen. Ondoren, ikastetxeetatik jasotako informazioarekin eta gazteekin izandako lehenengo kontaktuaren ostean, euskara maila oso ezberdina zeukatenez Gaztelekuan 2 talde osatzea erabaki zen: alde batetik iritsi berrientzat oinarrizko maila, eta bestetik aurreko urtean parte hartu zutenei jarraipen bat emateko sortutako taldea.

Iritsi berrien taldean 5 neska-mutilek eman zuten izena, baina  hauetako bat ez da inoiz azaldu. Guztiak Aldatzeko ikasleak dira hiru 1.go mailakoak eta bestea 2.mailakoa.

Maila altuagoa dutenen taldean, 11 nerabek eman zuten izena, baina 4-5 egon dira parte hartzen.

2 talde hauek astelehenetan eta asteazkenetan bildu dira 17:30etatik 18:45 bitartean.

IZENBURUA: **TXIKITASUNEAN HAUNDI MOTIBAZIO SAIOAK DBH1**

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak DBH 1eko Ikastalde guztiei motibazio saioak eskaintzen dizkie. Eskolan bertan eskola orduetan izaten da, Udalak finantzatzen du, eta Eta Kitto euskara elkarteak eskaintzen ditu. Helburua euskaraz egitera animatzea da.



**EPEA**:

Urriaren 17 eta 19an La Salleko 2 talde
Urriaren 23, 24, 25, 30, 31 eta azaroaren 2an Mogel Isasiko 8 talde
Azaroaren 28an eta abenduaren 4an Aldatzeko 2 talde

**GASTUA**: 2.210 €

**BALORAZIOA:**
336 ikaslek jaso dituzte motibazio saio hauek. Eibarko DBH1 maila duten ikastetxe guztietako ikasleek hartu dute parte. Orohar ikasleek saioari buruz egin duten balorazioa ona da. Balorazio guztiak taldeka **HEMEN** daude.

**IZENBURUA**: **<u>TXIKITASUNEAN HAUNDI MOTIBAZIO SAIOAK DBH3</u>**

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak DBH 3ko interesa duten ikasleei, euskara batzordekoak direlako edo besterik gabe, motibazio saioak eskaintzen dizkie. Eskola orduetan izaten da, Portalean. Udalak finantzatzen du. eta Eta Kitto euskara elkarteak eskaintzen ditu. Helburua euskaraz egitera animatzea da.



**EPEA**: 2017ko urtarrilaren 25a eta otsailaren 1a

**GASTUA**: 363 €

**BALORAZIOA:** Guztira 23 ikaslek hartu dute parte.
Itzioko 6 ikasle, Mogeleko 6 ikasle, La Salleko 6 ikasle eta Aldatzeko 5 ikaslek hartu dute parte. Orohar partehartzaileek egin duten balorazioa ona izan da.
Gainera ikasle horiek euren ikaskideen artean azaltzen dute tailerretan landutakoa.

**IZENBURUA**: **ZERGATIK EZ MOTIBAZIO SAIOAK BATXILERGOA**

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak Batxi 1eko ikasleei motibazio saioak eskaintzen dizkie. Eskola orduetatik kanpo izaten da, Portalean. Udalak finantzatzen du. Helburua da euskararen erabilera sozialaren inguruan hausnartzea eta partaideen hizkuntzaren aldeko jarrera indartzea. Saio hauek Elgoibarko Izarra euskara elkartekoek ematen dituzte.




**EPEA**: 2017ko urtarrilaren 27a eta otsailaren 3a

**GASTUA**: 453,75 €

**BALORAZIOA:** La Salle eta Aldatzeko ikasleek hartu dute parte. Guztira 17 ikaslek hartu dute parte. Aldatzeko 13 eta La Salleko 4. Balorazioa oso ona izan da. Kontuan izan behar da parte hartu duten ikasle gehienen etxeko hizkuntza gaztelania dela eta lagunartean ez dutela euskararik erabiltzen ia inoiz. BALORAZIO OSOA.

**IZENBURUA**: **GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO HARPIDETZA KANPAINA**

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak Gaztezulo aldizkarian doan harpidetzeko egiten duen kanpaina da. Kanpaina Batxilergoko 1 mailako D ereduko ikasleen artean egingo da. Kanpaina horretan interesa duten ikasleei 6 hilabeteko harpidetza oparituko zaie.



**EPEA**: 2017-2018 ikasturtea. Kanpaina 2017ko irailean egin

**GASTUA**: 164,74 €

**BALORAZIOA:** 15 harpidetza egon dira. Kontuan izanda Batxilergoa 1 mailan D ereduan 139 ikasle daudela, esan dezakegu kanpaina ez dela oso arrakastatsua izan. Gainera izena eman duten hainbat ez dira eibartarrak, inguruko herrietakoak baizik. Lehen saiakera izan da. Garrantzitsua izango da jakitea 15 horietatik zenbatek berritzen duten eurek ordaindutako harpidetza.

IZENBURUA: <u>**BULARRETIK MINTZORA**</u>

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak ikastetxeekin eta familiekin lankidetzan *BULARRETIK MINTZORA* egitasmoa jarri du martxan. Egitasmo horretan Euskara arloa, udal liburutegia, ikastetxeak eta familiak izango dira partaide.Euskara arlotik egitasmoaren zabalkundea egingo da ikastetxeetan eta gurasoen formazio kostua ordainduko da.




**EPEA**: 2016-2017 ikasturtea.

**GASTUA**: 4.680,00 €

**BALORAZIOA:** HH eta LHko ikastetxe guztiek hartu dute parte Urkizuk izan ezik. Aurrerago gaia aztertzekotan geratu dira. San Andres ikastetxea ikasturte bat lehenago abiatu zen bere kontura. Momentu honetan 6 ikastetxe daude egitasmoaren barruan. 16 formazio saio eskaini zaizkie programaren barruan zeuden irakasleei.

**IZENBURUA**: <u>**BAGABIGAHIGA EMANALDIA**</u>

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak antolatzen du DBH 4ko ikasleei musika emanaldia Eñaut Elorrieta eta Mikel Markezen eskutik. Eskola orduetan izaten da, Coliseoan. Udalak finantzatzen du. Helburua da euskal musika ezagutzea, zaletasuna sortzea eta euskal erreferenteak sortzea.




**EPEA**: 2017ko maiatzaren 15a

**GASTUA**: 484,00 €

**BALORAZIOA:** DBHko ikastetxe guztiek hartu zuten parte. Guztira 257 ikaslek hartu dute parte. Balorazioa oso positiboa izan da, nahiz eta ikasle gutxi batzuen jarrera ez den egokiena izan, batez ere emanaldiaren hasieran.

IZENBURUA: <u>EUSKALDUNTZE KANPAINA BEREZIAK 2016-2017</u>

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak, udal euskaltegiak, AEK-k lankidetzan gurasoei, langabetuei, ikasleei, dendari/ostalariei, enpresetako enplegatuei eta 65 urtetik gorako jubilatuei zuzendutako kanpaina berezia egiten da.

Kanpaina horren ezaugarrietako bat matrikulan duten %50eko deskontua da.




**EPEA**: 2016ko iraila

**GASTUA**: 24.334€ko deskontua egin da Udal euskaltegian eta AEK-k 24.900 € diru-laguntza izenduna du.

**BALORAZIOA:**
Udal Euskaltegian eta AEKn kanpaina hauen bitartez matrikulatu diren ikasle kopurua honako hatu da:

| IKASLE MOTA | IKASLEAK |
|---|---|
| GURASO | 95 |
| JUBILATU | 13 |
| LANGABETU | 33 |
| KOMERTZIALAK | 5 |
| ENPRESAK | 9 |
| IKASLEAK | 24 |
| **GUZTIRA** | **179** |

Guraso kopuruak nabarmen egin du gora Gurasoak ere eskolara eskaintzarengatik.

**IZENBURUA**: <u>**GURASOAK ERE ESKOLARA EGITASMOA 2016-2017**</u>

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak, udal euskaltegiak, AEK-k eta HH eta LHko ikastetxeek lankidetzan 60 orduko euskara ikastaroak eskaini dituzte ikastetxeetan. Eskaintza ikastetxe bakoitzak egin du bere gurasoen perfila kontuan hartuta egokien iruditu zaien moduan. Hauek ere matrikularen %50 ordaindu dute ikastaroa.




**EPEA**: 2016ko azaroa 2017ko apirila

**GASTUA**: Deskontuen zenbatekoa kanpaina berezien fitxan dago sartuta.

**BALORAZIOA:**
Kanpaina horren ondorioz 150 guraso baino gehiagok eman dute izena eta guztira 8 talde osatu dira: Arrateko Andra Marin talde 1, Amañan 2 talde, Mogelen 2 talde, San Andresen talde 1 eta La Sallen 2 talde.

Astean 4 eskola ordu jasoko dituzte eta helburua euren seme-alaben euskalduntze prozesuan eurek ere euskara ikasita laguntzea da.

Azpimarratzekoa da Eibarko gurasoek erakutsi duten interesa euskara ikasteko. Ikastaro hauen bitartez gurasoek euskara ikasteaz gain, euren seme-alaben aurrean hizkuntzari dagokionean izan beharreko jarrera egokiak ere landu nahi dira, baita gurasoentzat oso praktikoak izan daitezkeen beste gai batzuk ere, esaterako nola lagundu etxeko lanekin.

Esan beharra dago kanpaina honen jatorria Arrateko Andra Mari ikastetxean dagoela; izan ere, iaz bertan nahiko modu espontaneoan euskara ikasi nahi zuen guraso talde bat elkartu zen, eta ikastetxe horretan zegoen andereño batek hartu zuen bolondres bere gain guraso horiei euskara irakasteko lana. Talde horren emaitzak maiatzean egindako Transmisio Mintegian ezagutu ziren eta ekimenaren arrakasta ikusita antolatu da aurtengo kanpaina.

**IZENBURUA**: **EUSKALTEGIEN LEHIAKETA: ARGAZKI DIGITAL LEHIAKETA**

**DESKRIBAPENA**: Eibar aldeko euskara hiztegiko berba bat, edozein, ondoen irudikatzen duen argazkia hautatzeko lehiaketa da.

Eibarko Udalak euskaltegi biekin lankidetzan BERBA lehiaketa antolatzen du: politena, itsusiena, eibartarrena… hautatzeko lehiaketa izaten da. Helburua euskaltegien otsaileko matrikulazio kanpaina bizitzea da, eta bide batez euskararekin jolas egitea. Sari bat epaimahaiak emandakoa eta bestea webean boto gehien jaso dituenarentzat izaten da. Lehiaketa irekia izaten da eta edonork har dezake parte. Udal liburutegiak, Gaztelekuak eta DBH eta Batxilergoko ikastetxeek hartzen dute parte Euskara sailarekin batera.




**EPEA**: 2017ko otsaila-martxoa

**GASTUA**: Coliseorako eta Armagintza museorako 4 sarrera.

**BALORAZIOA:** 63 lagunek hartu dute parte eta 68 argazki aurkeztu dituzte. Epaimahaiaren saria PEGORA berbak/argazkiak jaso du eta herritarrena ANTIPARRAK berba/argazkiak

**IZENBURUA**: **<u>FILMAZPIT</u>**

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak euskaltegiekin lankidetzan Filmazpit egitasmoa burutzen du. Filmazpit egitasmoak euskaraz azpititulatutako filmak emateko aukera eskaintzen du. Filmak doan ematen dira Portaleko Areto Nagusian euskaltegiaren ordutegian eta iluntzean. Sarrera irekia da.




**DATAK**: 2017/02/02 NOLA

2017/03/02 EMAKUMEEN FILM LABURRAK

2017/05/31 GABRIEL

2017/11/27 FENIX

**GASTUA**: Areto Nagusiaren erabilera.

**BALORAZIOA:** 4 filma eman dira 2017an eta guztira 175 ikusle inguru izan dira.

**IZENBURUA**: **<u>SENTSIBILIZAZIO SAIOAK AISIALDI ETA KIROLETAKO BEGIRALEENTZAT</u>**

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak Euskara Sailaren bitartez ikasturte hasieran sentsibilizazio saio desberdinak eskaintzen dizkie aisialdiko begiraleei, Multikiroletako begiraleei, Musika Eskolako irakasleei eta Kirol Patronatuko langileei.







**DATAK**: 2017/11/17 koordinatzaileentzako saioa

2017/10/20 eta 2017/11/17 begiraleentzako saioak

**GASTUA**: 750 €

**BALORAZIOA:** Aisialdiko eta kiroletako koordinatzaileentzako saio berezia egin da eta bertan Astixako 2 arduradunek eta udaleko Gazteria teknikariak hartu dute parte. Begiraleek bi saio jaso dituzte eta guztira 16 hezitzailek hartu dute parte

**IZENBURUA**: **MULTIKIROLAK 2016 2017**

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak ikastetxeekin eta Kirol Patronatoarekin lankidetzan Multikirolak egitasmoa bideratzen du. Euskara zerbitzutik egitasmoa burutzeko kirol monitoreen enpresa baten kontratazioan parte hartzen da, kirol jarduerak euskaraz izan daitezen eta begiraleek euskararen erabileraren neurketa egin eta erabilera sustatu dezaten umeen artean eta baita partidetan kirol klubetatik datozen epaile eta adituen artean.



**EPEA**: 2016-2017 ikasturtea

**GASTUA**: 3.993 €

**BALORAZIOA:** Ikastetxe guztietako umeek hartu dute parte. Umeen % 51 hartzen du parte egitasmoan. 280 benjaminek hartu dute parte eta horietatik 81 neskak izan dira. 270 alebinak izan dira eta horietatik 76 neskak.
Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, talde harreman hizkuntza euskara dute umeen % 59k eta monitorearekin euskaraz egiten dutenak % 79 izan dira. Ikastetxeen arabera alde handiak daude, bai partaidetzan, bai euskararen erabileran.
Ikusi taula.

| | KOPURUA | THHE | | MHHE | |
|---|---|---|---|---|---|
| 2016-2017 | 442 | 259 | **59%** | 349 | **79%** |
| 2015-2016 | 377 | 171 | **45%** | 297 | **79%** |
| 2014-2015 | 456 | 258 | **57%** | 320 | **70%** |
| 2013-2014 | | | | | |
| 2012-2013 | | | | | |
| 2011-2012 | 511 | 206 | **40%** | 350 | **68%** |
| 2010-2011 | 459 | 278 | **61%** | 314 | **68%** |
| 2009-2010 | 350 | 122 | **35%** | 267 | **76%** |
| 2008-2009 | 523 | 169 | **32%** | 322 | **62%** |
| 2007-2008 | 496 | 227 | **46%** | 404 | **81%** |
| 2006-2007 | 372 | 162 | **44%** | 255 | **69%** |

Horretaz gain Eskola kiroletako partidetan klubek ere parte hartzen dute eta euskararen erabileraren neurketa egiten da. Ikusi hemen **TXOSTEN OSOA**

**IZENBURUA**: **KORRIKA**

**DESKRIBAPENA**: Euskara Batzordetik Korrika Eibartik pasatzen denean Korrika egiteko kilometroa erosten da.




**DATAK:** 2017/04/07 23:00

**GASTUA**: 215 €

**BALORAZIOA:** Euskara Batzordeko ordezkari politikoek lekukoa eraman zuten Barrena kalean

**IZENBURUA**: **TRANSMISIO MINTEGIA**

**DESKRIBAPENA**: …Eta Kitto! Euskara elkarteak antolatzen du udalaren babesarekin. Goiz osoko mintegia euskararen transmisioari buruzko hizlariekin eta mahai inguruarekin Euskal Herri osoko euskara teknikari, irakasle, aisialdiko begiraleei zuzendua.



**DATAK:** 2017ko maiatzaren 23an, asteartea 8:45-14:30

**GASTUA**: 1.000 €

**BALORAZIOA:** Goiz osoko egitarauan 6 hizlari egon dira eta amaieran mahaingurua egin da.

IZENBURUA: <u>**EUSKARAREN EGUNA 2017**</u>

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak ikastetxeekin eta euskalgintzarekin elkarlanean Euskaran Nazioarteko Egunaren antolaketan hartzen du parte. Aurten AKEBAIren babesa eta lankidetza izan du euskalgintzako taldeak.




**DATA:** 2017ko abenduaren 3a

**GASTUA**: 2.185 €

**BALORAZIOA:** Egun osoko egitaraua burutu zen. 400 lagun egon ziren bazkaltzen. Familien presentzia nabarmena zen.
Aurten igandea izanik ikastetxeekin ez da ezer berezirik egin plazan. Zubia gorabehera ikastetxe batzuek ostiralean ospatu zuten eta beste batzuek astelehenean.

**IZENBURUA**: **EIBARKO EUSKARA .EUS**

**DESKRIBAPENA**: Euskara zerbitzuak KAM enpresaren bidez [www.eibarko-euskara.eus](http://www.eibarko-euskara.eus) web gunea kudeatzen du. Bertan Eibarko euskara hiztegia, argitalpenak eta Eibarko euskararen lotura duten egitasmoak daude jasota.




**GASTUA**: 745 €

**BALORAZIOA:** Ez daukagu erabiltzaileen daturik 2016ko abenduan .net izatetik .eus izatera pasatu zelako, eta google analyticsek ez ditu jaso. Momentu honetan gune hau gehien bat Eibarko Euskara Hiztegia on line mantentzeko da. Aztertu egin beharko genuke merezi ote duen gune bat horretarako edukitzea.

**IZENBURUA**: **<u>JUAN SAN MARTIN BEKA 2017</u>**

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak UEUrekin lankidetzan ikerketa beka kaleratzen du 2 urtean behin. Beka 9.000€koa da eta lehiaketa bidez esleitzen da. 2017an gaia ARKEOLOGIA izan da.




**EPEA:** 2017

**GASTUA**: 0 € Hutsik geratu da. Aurrekontuan 9.000€

**BALORAZIOA:** Deialdi honetarako bi eskaera bakarrik jaso dira. Eskaera bat epez kanpo jaso zen eta besteak ez zuen proposatutako gaia jorratzen (Arkeologia). Beka honetarako ez dira eskaera asko jasotzen, bataz beste 5-7 eskaera. Deialdi honetan inoiz baino gutxiago. Arrazoien artean, Udal Aurrekontua oso berandu onartu izana egon daiteke. Izan ere, normalean deialdia martxoa-apirila aldean kaleratzen da eta aurten uztailean egin da.

**IZENBURUA**: <u>**HITZALDIA: ITZALITAKO KALABAZEN BERPIZTEA**</u>

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak UEUrekin lankidetzan 2015ean kaleratutako Juan San Martin bekaren irabazleen lanaren aurkezpen hitzaldia izango da. Bekaren oinarrietan jasota dago lana aurkezteko hitzaldia egin behar dutela. Bertan irabazleak eta epaimahaikideak izango dira.




**EPEA:** 2017ko urriaren 17a

**GASTUA**: Bekak barne hartzen du.

**BALORAZIOA:** Gaiak herritarren artean interesa piztu du, bereziki kultur elkarte desberdinetako partaideen artean eta ikastetxeetako irakasleen artean. 2018an lana argitaratzeko asmoa dago. Guztira areto nagusian 60 lagun inguru elkartu ziren.

**IZENBURUA**: **<u>UEU DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA</u>**

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak UEUn ikastaroak egiten dituzten eibartarrei eta baldintzak betetzen dituztenei matrikularen %50ari dagokion diru laguntza ematen diete.

Ikastaro hori indarrean dagoen ikasturtean egindakoa izan behar da.
**Diru-laguntza jaso ahal izateko ikastaroa 2016/09/01 eta 2017/07/31 bitartean egindakoa izan behar da.**




**ESKAERA EGITEKO EPEA :** 2017/09/29

**GASTUA**: 375,50 €

**BALORAZIOA:** 6 eskera egon dira eta baldintza guztiak betetzen zituztenez, denak eman dira ontzat.

IZENBURUA: **EUSKARA DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAK**

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udalak Eibarren euskararen berreskurapenerako lanean diharduten elkarteekin diru-laguntza izendunak ditu. Diru-laguntza bi zatitan ordaintzen da, %60 hitzarmena sinatzen denean eta %40 zuriketa aurkeztu eta ontzat eman ondoren.




Eibarko AEK 24.900€

Eibarren euskararen irakaskuntzan aritzeko AEK-k garatuko dituen jarduerak finantzatzea. Helduen euskalduntze-alfabetatze ikastaroen matrikula prezioak merkatzea.

Eta Kitto Astekaria 60.041€

Eta kitto astekaria argitaratzea. Eta kitto astekaria argitaratzen laguntzea. Euskararen sustapena. Euskaraz irakurtzea sustatzea Eibarko euskaldunak euskaraz irakurtzen ohitzea eta euskara gutxi edo ia ezer ez dakitenak ere euskarara gerturatzea

Eta Kitto Berbetan 50.908€-

Berbetan egitasmoa burutzea

Euskaldun berrien eta euskaldun zaharren artean harremanak sustatzea eta euskaldun berriei euskaraz praktikatzeko aukera ematea. Euskaldun berriek euskaltegian ikasitako euskara kalean, familian, merkataritzan eta ostalaritzan erabiltzea.

Eta kitto Txikitto 13.500€

Txikitto aldizkaria argitaratzen laguntzea. Euskararen sustapena umeen artean. Euskarazko irakurketa sustatzea. Lehen Hezkuntzako umeen artean euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitzea eta gurasoek eta umeek euskarazko irakurketa konpartitzea

Eta Kitto Tailerrak eta hitzaldiak 5.000€

Tailerrak eta hitzaldiak antolatzea. Eta Kitto euskara elkarteak antolatuko dituen tailer eta hitzaldiak finantzatzen laguntzea. Euskararen sustapena. Euskararen erabilera sustatzea. Euskarazko tailer eta hitzaldi eskaintza handitzea.

Badihardugu 1.386€

Ahozko ondarea jasotzea, ikertzea eta hedatzea. Ahozko ondarea jasotzea. Euskalkiak eta antzinako kontuak jasota, euskalkiak eta historia aztertu eta hedatzea

Deba Beheko bertso eskola 1.735€

Bertsozaletasuna sustatzea. Eibarko bertso eskolaren jarduera egitaraua burutzen laguntzea. Eibarko ume eta gaztetxoen artean bertsozaletasuna handitzea.

**EPEA :** 2017

**GASTUA**: 157.470 €

**BALORAZIOA:** Elkarteek egindako gastuen zuriketa aurkeztu dute eta ontzat eman da.

**IZENBURUA:** <u>**AKEKIDEEN ERREGISTROA**</u>

**DESKRIBAPENA**: AKEBAI Batzarra osatzen duten kideek fitxa bat bete behar dute erregistratuta geratzeko eta Akekide izaera edukitzeko. Sinatutako fitxak jaso eta gorde egiten dira alfabetikoki ordenatuta. Datuak eskuragarri izateko akekideen zerrenda taula batean jasotzen da. Fitxako dataren arabera zenbaki bat izango du akekide bakoitzak.



Eibarren AKEBAI

AKEKIDE

*EIBARKO HIRIA* EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOarekin bat egiten dut, eta AKEBAI Batzarreko kide izateak dakartzan egitekoak eta betebeharrak onartzen ditut.

**NORBANAKOA** ☐

**ORDEZKARIA** ☐ Ordezkatzen dudan talde/elkarte/erakundea: ______________________

*Kontakturako datuak:*

Izen-abizenak:

NAN:

Jaiotze data:

Helbidea:

Telefonoa:

Emaila:

*Akekide izateaz gain, parte hartu nahi dut:*

EKITALDIAK mahaian ☐ KULTURA mahaian ☐

KIROL mahaian ☐ TRANSMISIO mahaian ☐

KOMUNIKAZIO mahaian ☐ BESTERIK ☐ ______________

Data: ______________________________

Sinadura

**EPEA**: 2017 urtea

**GASTUA**: Barne baliabideak

**BALORAZIOA:**

2017an zehar 131 akekide fitxa jaso dira.

IZENBURUA: **BATZORDE TEKNIKOA (behin-behinekoa)**

**DESKRIBAPENA**: Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzeko sortu beharreko egitura osatzen du, Foroarekin eta Lan mahaiekin batera, Batzorde Teknikoak. EMUNeko teknikarien gidaritzapean 2017-2018ko kudeaketa plana prestatzeko sortu da behin-behineko batzorde hau, kide batzuen partaidetza behin-behinekoa baita (zeregin jakin horretarako boluntarioak)



**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne baliabideak

**BALORAZIOA:**

Partaideak izan dira: Junkal Txurruka (Udaleko euskara teknikaria), Ainara Lavado (eta Kitto Euskara Elkarteko normalizatzailea), Xabier Zubizarreta (euskaltegien ordezkaria), Patxi Lejardi (Udaleko Euskara Batzordeko kidea), Idoia Argoitia (koordinatzailea) eta lan mahaietako behin-behineko ordezkariak (Asier Sarasua, Mariano Luke eta Miren Baranguan)

Bi bilera egin dira EMUNeko teknikariekin batera (Iker Ajuriagerra eta Amaia Balda), 2017-2018rako kudeaketa plana prestatzeko: 2017/02/02 eta 2017/02/16

Asistentzia: % 85koa izan da

**IZENBURUA:** **DISKURTSOA, MARKA, LOGOA, IZENA**

**DESKRIBAPENA**: Euskararen Plan Estrategikoa martxan jartzeko *Euskararen Foroa* eratu zen plana diseinatzeko partaidetza mahaietan aritutakoekin, horrela, aurreikusitako egitura osatzen hasteko. Foro horretan sortutako talde bati (behin-behineko komunikazio taldea) honako eginkizuna jarri zitzaion: plataformaren edo proiektuaren izena, diskurtsoa, marka, logoa pentsatzea eta osatu beharreko egiturari ere izena ematea. Egindako lanaren aurkezpena egiteko martxora arteko epea jarri da.

Taldekideak: Junkal Txurruka (Udaleko euskara teknikaria), Ainara Lavado (eta Kitto Euskara Elkarteko normalizatzailea), Idoia Argoitia (koordinatzailea) eta Miren Baranguan, Mariano Luke eta Asier Sarasua (boluntarioak).





**EPEA**: 2017ko urtarriletik martxoaren 29ra

**GASTUA**: 1.263,44 €

Visual Thinking: 182,84 €<br>
Komunikazio aholkularitza: 572, 40 €<br>
Triptikoak: 508,20 €

**BALORAZIOA:**
Hamabi bilera egin dira urtarriletik martxoa bitartean: 17/01/12, 17/01/26, 17/02/09, 17/02/16, 17/02/23, 17/03/02, 17/03/09, 17/03/14, 17/03/16, 17/03/21, 17/03/23 eta 17/03/28.
Estitxu Garai komunikazio adituaren aholkularitza izan dugu zeregin honetan. Berarekin aurrez aurreko sei saio izan ditugu (17/01/12, 17/02/23, 17/03/02, 17/03/09, 17/03/16 eta 17/03/23) eta saiotik saiora gainbegiratze ez presentziala.

Asistentzia: % 96koa izan da

Egindakoa: diskurtsoa eta marka landu eta Briefing-a osatu, izena eta logoa aukeratu, Foroari aurkezteko ekitaldia prestatu, eta plataformaren balioak eta izena kaleratu eta ezagutarazteko ekitaldiaren nondik norakoak zehaztu.

**IZENBURUA:** **<u>AURKEZPEN EKITALDIA</u> (Martxoko Batzarra)**

**DESKRIBAPENA**:

Batzarkideak aktibatzeko eta Foroa (Batzarra) zabaltzeko, kide gehiago izateko, behin-behineko komunikazio taldeak prestatutako diskurtsoa (marka), egitasmoaren izena eta logoa aurkezteko **Aurkezpen ekitaldia** egin zen martxoaren 29an Portaleko Erakusketa lekuan.

Aurkezpena egin duten taldekideak: Junkal Txurruka (Udaleko euskara teknikaria), Ainara Lavado (eta Kitto Euskara Elkarteko normalizatzailea), Idoia Argoitia (koordinatzailea) eta Miren Baranguan, Mariano Luke eta Asier Sarasua (boluntarioak).







Eibarren AKEBAI

**DATA**: 2017ko martxoaren 29a

**GASTUA**: Luntxa: 169,40 €

**BALORAZIOA:** 31 kide bertaratu dira.

Aurkeztutako diskurtsoak, izenak eta logoak Batzarraren oniritzia jaso dute. Beraz, *Eibarren* AKEBAI izango da aurrerantzean plataformaren izena. Egitura osatzeko AKEBAI Batzarra, AKEBAI mahaiak eta Ekipoa izango ditu.

Hurrengo urratsa zein izan behar den ere adierazi da: AKEBAI ezagutarazteko eta bere balioak (aniztasuna, erronka, ilusioa, baikortasuna, elkarlana…) gizarteratzeko ekitaldi jendetsua antolatzea herrian, ekainerako.

IZENBURUA: <u>**GUINNESS EKITALDIA**</u>

**DESKRIBAPENA**: AKEBAI izena eta bere balioak (aniztasuna, baikortasuna, ilusioa, parte-hartzea, erronka…) gizarteratzeko ekitaldi jendetsua egitea pentsatu zen. Horretarako 2017ko ekainaren 22an Guinness marka hausteko 2.500 lagunek osatutako irudi baten eraldaketa egin zen Untzaga plazan. Hasieran AKEBAIren logoa eratu zen plazan; ondoren, kolore aldaketa eginez, lore itxi bat irudikatu zen; beste kolore aldaketa bat eginez lorea zabaldu zen.














**DATA**: 2017ko ekainaren 22a

**GASTUA**: Barne baliabideak

Guinness World Records-ekin harremana: 756,00 €
Zabalkundea: 4.575 €

Materiala: 17.230 €

Grabazioa/emanaldia: 11.832 €

GUZTIRA: 34.393 €

**BALORAZIOA:** Oso positiboa. 2.500 lagunek osatu zuten irudia, guneka antolatuta, eta koloreak aldatuz irudi eraldaketa argia lortu zen. Baina plaza inguruan askoz jende gehiago zegoen parte har zezakeena, eta interes handiz jarraitu zuen barruan gertatzen ari zena. Jai giroa izan zen nagusi: irribarreak, alaitasuna, aniztasuna, parte-hartzea, elkarlana, herrigintza… Beraz, nahiz eta artean Guinnessen epairik izan ez, marka hautsi zen.

AKEBAI izena ezaguna egin zen herrian, bere balioak ere azaleratu ziren; baina beste helburu bat ere bete zen ekitaldia prestatzeko prozesuan, eta ekitaldian bertan: herritarren aktibazioa. 120 lagun inguru (koordinatzaileak) ibili ziren prestaketa eta koordinazio lanak egiten lau guneetan (Behealdea, Amaña-Legarre, Urki-Ipurua eta Erdigunea), aurreko asteetan eta egunean bertan; herriko 100 elkarte inguruk adierazi zion atxikimendua ekimenari…

Apiriletik ekainera bitartean, hainbat bilera egin zen, arloka, ekitaldia antolatzeko, informazioa zabaltzeko eta herritarrak parte hartzera bultzatzeko, eta ekainetik irailera bitartean lortutako Guinnes ziurtagiriaren berri emateko eta zabaltzeko.

**Komunikazioa / Ekipoa:**

Taldekideak: Miren Baranguan, Ainara Lavado, Mariano Luke, Junkal Txurruka, Asier Sarasua eta Idoia Argoitia (Koordinatzailea)

19 bilera egin ziren: 17/04/27, 17/05/02, 17/05/08, 17/05/09, 17/05/15, 17/05/17/ 17/05/19, 17/05/22, 17/05/29, 17/06/05, 17/06/12, 17/06/16, 17/06/19, 17/06/20, 17/06/21, 17/06/28, 17/07/11, 17/09/05 eta 17/09/12

Asistentzia: % 86koa

**Koordinazioa:**

Taldekideak: Ane Urkiola (alor teknikoaren arduraduna), Ale Arriola (alor artistikoaren arduraduna), Miren Baranguan (Ekipoa), Asier Lopez de Viñaspre (alor artistikoa), J.M. Ulazia (harremanak alorraren arduraduna), Mariano Luke (Ekipoa / alor teknikoa), Junkal Txurruka (Ekipoa / azpiegitura alorraren arduraduna) Idoia Argoitia (Koordinatzailea)

Zazpi bilera egin ziren: 17/05/02, 17/05/10, 17/05/16, 17/05/30, 17/06/05, 17/06/13 eta 17/06/19

Asistentzia: % 89koa

**Harremanak:**

Taldekideak: Ane Sarasua, Amaia Abanzabalegi, Nerea Beitia, Igone Lazpita, Jon Mardaras, Patxi Lejardi, Iker Laka, Onintza Arrizabalaga, Jaione Guisasola, Laura Martinez, Ivan Iriondo, Nerea Azkarate, eta Idoia Argoitia (koordinatzailea).

Bost bilera egin ziren: 17/04/05, 17/04/24, 17/05/09, 17/05/15(17/05/15bis) eta 17/06/07

Asistentzia: % 78koa

**Informazio bilera orokorrak:** Herritarrei informazioa emateko lau bilera egin ziren, Eibarko lau gunetako jendeari zuzenduak.

| GUNEA | LEKUA | EGUNA | ORDUA |
|---|---|---|---|
| ERDIGUNEA | Udaletxea | Maiatzak 22 | 19:00 |
| URKI-IPURUA | Portalea | Maiatzak 23 | 19:00 |
| AMAÑA-LEGARRE | Armeria Eskola | Maiatzak 24 | 19:00 |
| BEHEALDEA | …eta kitto! | Maiatzak 25 | 19:00 |

Taldekideak: Asier Sarasua, Miren Baranguan, Ainara Lavado, Mariano Luke, Junkal Txurruka, Joxe Mari Ulazia eta Idoia Argoitia

**Prentsaurrekoa:**
Ekainaren 14an, 19:00etan, Untzagan, egin zen prentsaurrekoa ekitaldiaren berri emateko eta AKEBAIren helburuak adierazteko. Plataformaren bozeramaleez gain Guinness errekorrerako AKEBAIri babesa eman zioten elkarte eta erakundeetako ordezkariak izan ziren bertan.

Bozeramaleak: Markel Alberdi, Miren Baranguan eta Manu Goiogana

**Koordinatzaileekin:**
60 koordinatzaile inguru ibili ziren guneak antolatzen. Horiekin batera Ekipoa eta Koordinazio taldea.

Bi bilera egin ziren ekitaldiaren aurreko prestaketarako: ekainaren 19an, 19:30ean, Armeria Eskolan, eta ekainaren 22an, 17:00etan udaletxeko Pleno Aretoan

Bilera bat egin zen ekitaldiaren ondoren, eskerrak emateko: uztailaren 11n, Portaleko Areto Nagusian

**Argazki eta bideo emanaldia**
Guinness marka lortu izana ospatzeko, irailaren 15ean, ostirala, Untzagan 20:30ean ekainaren 22ko ekitaldiko argazkiak eta bideoak erakutsi ziren pantaila handian.

**Guinness World Records-en ziurtagiri ofiziala**
Azaroaren 15ean ziurtagiri ofiziala udaletxeko patioan jarri zuen alkateak, herritarrek ikusteko moduan.

**IZENBURUA:** **ERATZE BATZARRA** **(Iraileko Batzarra)**

**DESKRIBAPENA**: 2017ko irailaren 20an Udaletxeko patioan egin da ERATZE BATZARRA. AKEBAI Batzarraren egitekoak zehaztuta daude araudian. Urtean birritan batuko da gutxienez, Ekipoak deituta.







**DATA**: 2017ko irailaren 20a

**GASTUA**: Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** 75 kide akekide azaldu dira.

Taldekideak (behin-behineko Ekipoa): Junkal Txurruka (Udaleko euskara teknikaria), Ainara Lavado (eta Kitto Euskara Elkarteko normalizatzailea), Idoia Argoitia (koordinatzailea) eta Miren Baranguan, Mariano Luke eta Asier Sarasua (boluntarioak)

Bi bilera egin dira Batzarra prestatzeko: 17/09/05 eta 17/09/12

Asistentzia: % 100ekoa izan da

AKEBAI Batzarra eratu da, eta bera izango da aurrerantzean erabaki-gune nagusia.

Ekipoko kide berriak aurkeztu dira eta Batzarrak oniritzia eman dio taldeari. Mahaiak ere eratu dira: *Ekitaldiak* mahaia, *Kirol* mahaia, *Komunikazio* mahaia, *Kultura* mahaia eta *Transmisio* mahaia. AKEBAIren egitura osatu da, eta egitasmoa martxan jarriko da.

**IZENBURUA: KUDEAKETA PLANA 2017-2018**

**DESKRIBAPENA**: Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzeko 2017-2018ko kudeaketa plana, Batzorde Teknikoak. EMUNeko teknikarien gidaritzapean prestatua.

**PROIEKTUEN GESTIO PLANERAKO EREDUA**

**Erabiltzeko jarraibideak**

**OHAR TEKNIKOAK**

Excel liburu honetan hiru orri daude:
- Euskara plan mota guztietarako (enpresa, administrazio…) plan estrategikoa jasotzeko orria
- Euskara plan mota guztietarako (enpresa, administrazio…) euskararen gestio plan eredua
-Euskararen gestio planeko betetze mailen grafikoen orria

Helburu bakoitzak hamabi ekintzarako lekua du baina horrenbeste ekintza egiteko asmorik ez baduzu EZABATU Helburuaren Betetze Mailaren gelaxkan dagoen **formula,** dagokion ekintzarik gabeko errenkadan. Ezabatu ezean, edo %0n utziz gero, batez besteko betetze mailan okerreko emaitza emango du.

Helburuaren Betetze Mailaren gelaxkako formula ezabatu eta berriz ezarri nahi baduzu, kopiatu zutabe bereko formuladun gelaxka eta itsatsi formularik gabeko gelaxkan.

**PLAN ESTRATEGIKOA**

-Eskuz sartu behar da plan estragikoari dagokion orria. Ez dauka formularik, plan estrategikoa idatziz jasotzeko lekua da.
-Urtero gestio plana egiterakoan, epealdi horretako plan estrategikoa eskura eta erabilgarri izatea da orri honen helburua.

**HELBURUAK ETA EKINTZAK**

-ADInet-en araberako 5 arloak kontuan izatea hobesten da helburuak, ekintzak... zehaztu eta planifikatzerakoan: kudeaketa, motibazioa, ezagutza, eskaintza eta erabilera.
-Enpresan edo erakundean ADInet-en araberako 5 arloak erabiltzen ez badira, helburuak eta ekintzak zehaztu eta planifikatzerakoan ohiko 4 arloak erabiltzea hobesten da: instituzionalizazioa, ezagutza, erabilera, eta motibazioa.

Helburuen portzentajea jartzeko: ADInet-en bidez.

Ekintzen portzentajea jartzeko:
- 5 maila erabili nahi izanez gero, %0 (hasi gabe), %25 (hasita), %50 (erdizka), %75 (bukatzear) edo %100 (bukatuta) erabili
- 3 maila erabili nahi izanez gero, %0 (hasi gabe), %50 (erdizka) edo %100 (bukatuta) erabili

Orduen kalkulua agertzen da, Emuneko LAJetan kudeatu eta jarraipena egiteko. Bezeroaren arabera orduak erakutsiko dira edo ez. Kudeaketarako hainbat kontzeptu jarrita daude eredu gisa. Proiektu bakoitzera egokitu beharko dira.

**EZ NAHASTU EKINTZAK ETA HELBURUAK !!**
- "Tailerreko errotulazioko euskararen presentzia %35etik %40ra pasa": **helburua** da.
- "Tailerreko 20 errotulu euskaraz ere jarri": **ekintza** da.

**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** 2017-2018ko Kudeaketa plana egin da. Aurreikuspena da; irailean Mahaiak eta Ekipoa eratzen direnean, bakoitzari dagozkion helburu eta ekintzak egokituko dira beharrezkoa iritziz gero.

**IZENBURUA: EKIPOA**

**DESKRIBAPENA**: Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzeko sortu den *Eibarren* AKEBAI plataformak duen egituraren geruzetako bat da. (BATZARRA eta MAHAIAK dira besteak). Nahiz eta kide batzuk bi urtez behin aldatu (mahaietako kideak eta euskaltegietako ordezkaria) Ekipoaren osaera finkatuta dago. Oro har, Kudeaketa Plana betetzeaz arduratuko da. Dagozkion egitekoak araudian daude zehaztuta. Gutxienez, hilean behin batzartuko da.

2017ko irailaren 20ko Eratze Batzarrean proposatu eta aurkeztu zen Ekipoari Batzarrak oniritzia eman zion.

 

**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Ekipoa martxan jarri da. Hainbat zeregini heldu dio irailetik urte bukaerara bitartean: mahaien funtzionamendua gainbegiratu; izenarekin sortutako auzia bideratu eta irtenbidea nola eman pentsatu; AKEBAIra iritsi diren proiektuak baloratu; diskurtsoak berritzeko eta parte-hartze zabalagoa lortzeko “Hamaika berbaldi” ekimena sortu…

Partaideak izan dira: Junkal Txurruka (Udaleko euskara teknikaria), Ainara Lavado (eta Kitto Euskara Elkarteko normalizatzailea), Xabier Zubizarreta (AEK euskaltegikoa) (euskaltegia aldatuz txandaka), Gorka Errasti (Udaleko Euskara Batzordeko kidea) (6 hilabetez behin, txandaka) Ane Urkiola (Komunikazio mahaiko kidea), Miren Baranguan (Transmisio mahaiko kidea), Manu Goiogana (Kultura mahaiko kidea), Jaione Guisasola (Ekitaldiak mahaiko kidea) eta Idoia Argoitia (koordinatzailea).

Sei bilera egin dira urtean zehar: 17/10/05, 17/10/10, 17/10/26, 17/11/08, 17/11/20 eta 17/12/11.

Asistentzia: % 91koa izan da

IZENBURUA: <u>**EKITALDIAK MAHAIA**</u> **(Harremanak)**

**DESKRIBAPENA**: Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzeko sortu den ***Eibarren*** **AKEBAI** plataformak duen egituraren geruzetako bat MAHAIEK osatzen dute. BATZARRA eta EKIPOA dira besteak.

Ekitaldiak mahaia hasiera batean ez zegoen aurreikusita, baina ikusita zein garrantzitsua zen herritarrak aktibatzea, sare bat antolatu zen Eibarko auzoetan eta erdigunean harremanak egiteko.

2017ko irailaren 20ko Eratze Batzarrean Ekitaldiak mahaia (hasieran ***Harremanak***) izena jarri zitzaion guneak aktibatzeko sareari.
















**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Mahaia martxan jarri da hiru kiderekin; baina horien atzean sare bat dago, ekitaldiren baten inguruan martxan jartzen dena, Eibarko 4 guneetako (Urki-Ipurua, Behealdea, Amaña-Legarre eta Erdigunea) herritarrak aktibatzeko. Irailetik urte bukaerara bitartean ekitaldi baten inguruan bildu da mahai hau: **Euskararen Eguna.**

Partaideak izan dira: Jaione Guisasola, Eneritz Guisasola, Eukene Lamariano eta Idoia Argoitia (koordinatzailea).

Bi bilera egin dira: 17/11/13 eta 17/11/27

Asistentzia: % 87,5ekoa izan da

**IZENBURUA:** **<u>KIROL MAHAIA</u>**

**DESKRIBAPENA**: Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzeko sortu den ***Eibarren*** **AKEBAI** plataformak duen egituraren geruzetako bat MAHAIEK osatzen dute. BATZARRA eta EKIPOA dira besteak.

Mahaiek egunerokoan ekimenak proposatu eta garatu egingo dituzte, AKEBAI Batzarrak eta Ekipoak landutako helburuak lortzeko. Dagozkion egitekoak araudian daude zehaztuta. Gutxienez, urtean 5 bilera egingo ditu mahai bakoitzak, baina dinamiken arabera, maiztasuna egokitu egingo da.

2017ko irailaren 20ko Eratze Batzarrean sortu zen Kirol mahaia beste batzuekin batera.



**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Mahaia martxan jarri da. 2017-2018rako aurrez egindako Kudeaketa plana oinarri hartuta, beharrezko egokitzapenak egin eta 2018rako helburuak eta ekintzak finkatu dira. Horiek aurrera eramateko lehenengo urratsa izan da kirol elkarteekin harremanetan jartzea.

Partaideak izan dira: Markel Alberdi, Esther Kareaga, Anartz Mitxelena, Ina Oiartzabal, Josean Urkia, Nerea Ziaran, eta Idoia Argoitia (koordinatzailea)

Hiru bilera egin dira urtean zehar: 17/10/04, 17/11/08 eta 17/11/28

Asistentzia: % 73koa izan da

**IZENBURUA**: **KOMUNIKAZIO MAHAIA**

**DESKRIBAPENA**: Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzeko sortu den ***Eibarren* AKEBAI** plataformak duen egituraren geruzetako bat MAHAIEK osatzen dute. BATZARRA eta EKIPOA dira besteak.

Mahaiek egunerokoan ekimenak proposatu eta garatu egingo dituzte, AKEBAI Batzarrak eta Ekipoak landutako helburuak lortzeko. Dagozkion egitekoak araudian daude zehaztuta. Gutxienez, urtean 5 bilera egingo ditu mahai bakoitzak, baina dinamiken arabera, maiztasuna egokitu egingo da.

2017ko irailaren 20ko Eratze Batzarrean sortu zen Komunikazio mahaia beste batzuekin batera.



**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Mahai martxan jarri da. Hainbat zeregini heldu dio irailetik urte bukaerara bitartean: izenaren inguruan sortutako auziaren ondorioz marka diagnosia egiteko galdeketa prestatu; komunikaziorako baliabideak sortu; hainbat ekimenen zabalkundea antolatu; funtzionamenduaren inguruko hausnarketa egin…

Partaideak izan dira: Ana Aizpurua, Izaro Apraiz, Lorea Arakistain, Oier Araolaza, Ekhi Belar, Silbia Hernandez, Malen Illarramendi, Pedro Irusta, Yanire Sagredo, Joxe Mari Ulazia, Ane Urkiola eta Idoia Argoitia (koordinatzailea).

Sei bilera egin dira urtean zehar: 2017/10/02, 2017/10/17, 2017/10/30, 2017/11/14, 2017/12/05 eta 2017/12/12

Asistentzia: % 73,5ekoa izan da.

**IZENBURUA:** <u>**KULTURA MAHAIA**</u>

**DESKRIBAPENA**: Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzeko sortu den ***Eibarren* AKEBAI** plataformak duen egituraren geruzetako bat MAHAIEK osatzen dute. BATZARRA eta EKIPOA dira besteak.

Mahaiek egunerokoan ekimenak proposatu eta garatu egingo dituzte, AKEBAI Batzarrak eta Ekipoak landutako helburuak lortzeko. Dagozkion egitekoak araudian daude zehaztuta. Gutxienez, urtean 5 bilera egingo ditu mahai bakoitzak, baina dinamiken arabera, maiztasuna egokitu egingo da.

2017ko irailaren 20ko Eratze Batzarrean sortu zen Kultura mahaia beste batzuekin batera.



**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Mahaia martxan jarri da. 2017-2018rako aurrez egindako Kudeaketa plana oinarri hartuta, beharrezko egokitzapenak egin eta 2018rako helburuak eta ekintzak finkatu dira. Horiek aurrera eramateko lehenengo urratsa izan da herrian antolatzen diren jaien inguruko informazioa biltzea.

Partaideak izan dira: Oier Araolaza, Edurne Arizaga, Beatriz Arrizabalaga, Manu Goiogana, Mariano Luke, Ainhoa Luz, Ane Urkiola eta Idoia Argoitia (koordinatzailea).

Lau bilera egin dira urtean zehar: 17/09/27, 17/10/11, 17/11/02 eta 17/11/16

Asistentzia: % 67koa izan da

**IZENBURUA:** **TRANSMISIO MAHAIA**

**DESKRIBAPENA**: Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzeko sortu den ***Eibarren* AKEBAI** plataformak duen egituraren geruzetako bat MAHAIEK osatzen dute. BATZARRA eta EKIPOA dira besteak.

Mahaiek egunerokoan ekimenak proposatu eta garatu egingo dituzte, AKEBAI Batzarrak eta Ekipoak landutako helburuak lortzeko. Dagozkion egitekoak araudian daude zehaztuta. Gutxienez, urtean 5 bilera egingo ditu mahai bakoitzak, baina dinamiken arabera, maiztasuna egokitu egingo da.

2017ko irailaren 20ko Eratze Batzarrean sortu zen Transmisio mahaia beste batzuekin batera.




**EPEA**: 2017

**GASTUA**: Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Mahaia martxan jarri da. 2017-2018rako aurrez egindako Kudeaketa plana oinarri hartuta, beharrezko egokitzapenak egin eta 2018rako helburuak eta ekintzak finkatu dira. Horiek aurrera eramateko lehenengo urratsa izan da ikastetxeekin harremanetan jarri eta hainbat informazio biltzea.

Partaideak izan dira: Aitor Aizpuru, Maider Aranberri, Ainhoa Arrizabalaga, Miren Baranguan, Blanca Carracedo, Jon Mardaras, Maria Mardaras, Laura Martinez, Ander Santos, Asier Sarasua, Aitziber Uria, Marisol Uriarte eta Idoia Argoitia (koordinatzailea).

Lau bilera egin dira urtean zehar: 17/10/18, 17/11/09, 17/11/27 eta 17/12/21

Asistentzia: % 67koa izan da

**IZENBURUA**: <u>**EUSKARAREN EGUNA**</u>

**DESKRIBAPENA**: Euskalgintzak AKEBAIren laguntzaz eta finantziazioaz antolatu du Euskararen Eguna. ***Emon eskua euskeriari*** lemapean. *Ekitaldiak* mahaikoak arduratu dira Eibarko guneak aktibatzeaz.

**EGITARAUA**:.

- 12:00  Guneetan elkartu abesteko eta kalejiran Untzagara
- 12:30: Untzagan abestu
- Murala: pinturaz bustitako eskuen markak jarriko dira tira luzeetan
- 14:30: Herri-bazkaria
- Erromeria: “Parrrapas” taldearekin






**DATA**: 2017ko abenduaren 3a

**GASTUA**: 2.185 €

**BALORAZIOA:** Jende ugari bildu da plazan. Bazkarirako txartel guztiak saldu dira.

**IZENBURUA:** **EUSKARAREN AGENDA**

**DESKRIBAPENA**: Eibarren hilez hil antolatzen diren euskarazko ikuskizunak hileroko agendan biltzen dira ahalik eta leku gehienetara zabaltzeko: ikastetxe, euskaltegi, kultur eta euskara elkarteetara…



**EPEA**: 2017 urtea

**GASTUA**: 0 €

**BALORAZIOA:** Bederatzi hilabeteri dagozkien agenda egin eta zabaldu da; ekainekoa, uztailekoa eta abuztukoa ez dira egin.

**IZENBURUA**: **EUSKALTEGIKO PLANTILA**

**DESKRIBAPENA**: Euskaltegiko plantila 11 lagunez osatuta dago, 10 irakasle-normalizatzaile eta administrari bat. Gabonak bitartean 5 irakasle-normalizatzaile jardun osoan klaseak ematen aritu dira, jardun erdian aritzeko baimena duen irakaslea bere taldearekin, idazkari akademikoak lan jardueraren erdia karguari dagozkion bestelako lanekin bete du eta zuzendaria karguari dagozkion lanak gehi Euskararen Plan Estrategikoa prestatzeko lanetan. Gabonetatik aurrera zuzendari aldaketa egon denez, zuzendaritza hartu duenak zuzendari lanetan aritzeaz gain talde eta erdi izan ditu.

Guraso taldeetan eskolak emateko bi irakasle kontratatu dira bina taldetan aritzeko, baina batek beste eskaintza bat izan du eta bere ordez hirugarren bat hartu da.

2 irakasle Euskara Sailerako eta Pertsonal Sailerako lanean aritu dira, eta goian aipatu dugun bezala, hirugarren bat, urtarriletik aurrera Euskararen Plan Estrategikoaren dinamizatzaile lanetan.

| | |
|---|---|
| Zuzendaria | Idoia Argoitia (abendura arte)<br>Sorkunde Juaristi (urtarriletik aurrera) |
| Idazkari Akademikoa | Arantza Iriondo |
| Irakasleak | Nerea Beitia |
| | Itziar Garitagoitia |
| | Xabier Gezuraga |
| | Jon Sasiain |
| | Nerea Azkarate |
| Aldi baterako kontratatutako irakasleak | Elena Landaluze |
| | Idurre Lekuona |
| | Axun Urtzelai |
| Administraria | Arantzazu Barrutia |

**EPEA**: 2016-2017 ikasturtea

**GASTUA**:

**BALORAZIOA:** Euskaltegiak gero eta zailtasun handiagoa dauka ikasle kopurua mantentzeko eta eskola-orduei eusteko; Euskara Arloan, berriz, proiektu berriak direla eta, gero eta lan gehiago dago, beraz, irakasle batzuk Euskaltegitik Euskarara pasatu dira dagoeneko, 2016-2017 ikasturtean bi izan dira.
Hala ere, kanpaina bereziei aurre egiteko aldi baterako eta orduka 3 irakasle kontratu behar izan dira.

IZENBURUA: <u>EUSKALTEGIAREN ESKAINTZA</u>

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udal Euskaltegiak eskaintzen duen zerbitzua **16 urtetik gora**koei zuzenduta dago. Europear Hizkuntzen Erreferentzia Markoak ezarritako **maila guztiak** eskaintzen ditu, hau da, A1etik hasita C2ra arte, **goizez eta arratsalde/iluntzeko ordutegietan.**

**<u>Neguko ikastaroan</u>**, **Klaseak aurrez aurre eta autoikaskuntzan** izan daitezke. Aurrez aurrekoen artean modulu ezberdinak aukeratu daitezke (Astean 10 ordu astelehenetik ostegunera, astean bitan 2,5 orduko saioetan (C1 eta C2 mailetan), ikastaro trinkoak, 60 ordukoak (xede berezikoak badira)…

Autoikaskuntza tutoretza eta mintza-saioekin eskaintzen da.

**<u>Uda Ikastaroan</u>**,100 orduko **aurrez aurre**ko klaseak izaten dira bakarrik.

**Ikastaro berezien** artean, hauxe da eskaintza: Etorkinentzako harrera ikastaroa (AISA), Mintza-praktika ikastaroak, jubilatuei, gurasoei… zuzendutako ikastaroak, enpresetakoak, IRALEkoak…

Azterketa prestakuntza eta HABEko **azterketa deialdietara aurkezteko aukera** ere eskaintzen da**.**

2016-2017 ikasturtean, A1, A2 eta B1 **mailak egiaztatu** ahal izan dira Euskaltegian ebaluazio jarraituaren bitartez.

Euskaltegiak **Liburutegi zerbitzua** (mailari egokitutako liburuak maileguan) eta **Ordenagailu gela** (euskara ikasteko Internetek eskaintzen dituen baliabideak irakasleen eskura) ere erabiltzeko aukera ematen die ikasleei.




**EPEA**: 2016-2017 ikasturtea

**BALORAZIOA:** Maila guztiak eman dira. Aipatzekoa da C2 maila lantzeko talde bat osatzea oso zaila dela eta azken urteotan, urtero lortu dela maila horretako talde bat izatea.
Ikasle gehienek aurrez aurreko eskolak aukeratu badituzte ere, autoikaskuntzan 24 ikasle izan ditugu.

Ikastaro eta talde berezien artean, hauexek izan ditugu: Etorkinentzako harrera ikastaroa (AISA) (talde 1), *Gurasoak ere eskolara* kanpainatik sortutakoak (4 talde), Jubilatuen talde bat, IRALEko talde 1 Mutrikuko Institutuan (Sakontze-eguneratze ikastaroa), eta beste bat DEBEGESA enpresan, azken bi hauek autofinantzatutakoak, hau da, HABEren diru-laguntzatik at.

**IZENBURUA:** **<u>MATRIKULA EPEAK ETA EGUTEGIA</u>**

**DESKRIBAPENA:** Ikasturtea bi alditan banatzen da, negu ikastaroa (urria-ekaina) eta uda ikastaroa (ekaina-uztaila). Negu ikastaroaren matrikulaldi nagusia irailean izaten da, baina urtarrilean berriz zabaltzen da eskaerari erantzuteko eta taldeak osatzeko. Uda ikastaroaren matrikulaldia, ostera, ekainean izaten da. Negu ikastaroa urriaren lehenengo lanegunean hasten da eta San Juan jaien aurreko azken lanegunean amaitzen. Uda ikastaroa San Juan jaiak igaro eta lehenengo lanegunean hasten da eta 20 laneguneko iraupena du.

**2016-2017 ikasturteko egutegia eta matrikulaldiak**

Iraila 2016

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | | |

Urria 2016

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
| 31 | | | | | | |

Azaroa 2016

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | | | | |

Abendua 2016

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

Urtarrila 2017

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | 31 | | | | | |

Otsaila 2017

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | | | | | |

Martxoa 2017

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

Apirila 2017

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |

Maiatza 2017

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | 31 | | | | |

Ekaina 2017

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | | |

Uztaila 2017

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
| 31 | | | | | | |

**EPEA:** 2016-2017 ikasturtea

**BALORAZIOA:** HABEk ezartzen dituen epeak errespetatu dira eta egutegia bete da. Hala ere, epez kanpo etorri den pertsonari dagoen eskaintza azaldu zaio eta matrikulatzeko aukera izan du.

**IZENBURUA**: **TASAK ETA TARIFA BEREZIAK**

**DESKRIBAPENA**: Eibarko Udal Euskaltegiak euskara ikasteko ezarrita dauzkan prezioak ordaintzeko orduan erraztasunak emate aldera, tarifa bereziak jarri ditu zenbait kolektiborentzat. Ezinbestekoa da Eibarren erroldatuta egotea tarifa berezi hauetaz baliatzeko. Ikusi ORDENANTZA FISKALAK



**EPEA**: 2016-2017 ikasturtea

**GASTUA**: 21.459,75

**BALORAZIOA:** Ikasturte honetan 161 ikaslek izan dute tarifa bereziren bat (%63,4):

- Aurreko ikasturteko asistentziagatik 4 ikasle (%1,6)
- DBE-RGI izateagatik: 11 (%4,3)
- Guraso izateagatik: 78 (%30,7)
- Zerbitzuen sektorekoa izateagatik: 4 (%1,6)
- Enplegatua izateagatik: 6 (%2,4)
- 65 urte edo gehiago izateagatik: 9 (%3,5)
- Langabetua izateagatik: 32 (%12,6)
- Ikasle izateagatik: 17 (%6,7)

IZENBURUA: **TALDEAK, ORDUAK ETA IKASLE KOPURUA**

**DESKRIBAPENA**: 2016/2017 ikasturtean 254 ikasle ibili dira Euskaltegian 21 taldetan banatuta, guztira 39.584 ordu eman dira Neguko eta Uda Ikastaroaren artean.

| **2017/2018** | | **Talde kopurua** | **Emandako ordu kopurua** | **Ikasle kopurua** |
|---|---|---|---|---|
| **Negu Ikastaroa** | Aurrez aurre | 19 | 37.519 | 209 |
| | Autoikaskuntzan | - | - | 24 |
| **Uda Ikastaroa** | Aurrez aurre | 2 | 2.065 | 21 |

Maila guztiak eman dira:

| A1 | A2 | B1 | B2 | C1 | C2 |
|---|---|---|---|---|---|
| **OINARRIZKO ERABILTZAILEA** | | **ERABILTZAILE AURRERATUA** | | **ERABILTZAILE ADITUA** | |
| Hasierako erabiltzailea | Oinarrizko erabiltzailea | Erabiltzaile independientea | Erabiltzaile aurreratua | Erabiltzaile gaitua | Erabiltzaile aditua |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| - 2 talde<br>324 ordukoak<br><br>- Talde 1<br>60 ordukoa<br>**(AISA)**<br><br>- Talde 1 60 ordukoa<br>**(gurasoak)**<br>**44 ikasle** | - 2 talde<br>324 ordukoak<br><br>- 2 talde<br>60 ordukoak<br>**(gurasoak)**<br><br>**40 ikasle** | - Talde 1<br>324 ordukoa<br><br>- Talde 1<br>100 ordukoa<br>**(jubilatuak)**<br><br>- Talde 1<br>60 ordukoa<br>**(gurasoak)**<br><br>**36 ikasle** | - 3 talde<br>324 ordukoak<br><br>- Talde 1<br>100 ordukoa<br>(Uda Ikast.)<br><br>**51 ikasle** | - 2 talde<br>324 ordukoak<br><br>- Talde 1<br>100 ordukoa<br>(Uda Ikast.)<br><br>- Talde 1<br>93 ordukoa<br>**(Debegesa)**<br><br>**40 ikasle** | - Talde 1<br>165 ordukoa<br><br>**10 ikasle** |
| Autoikaskun.<br>**3 ikasle** | Autoikaskun.<br>**2 ikasle** | Autoikaskun.<br>**5 ikasle** | Autoikaskun.<br>**7 ikasle** | Autoikaskun.<br>**7 ikasle** | Autoikaskun.<br>**0 ikasle** |

Hortik aparte, IRALEk finantziatutako C1 mailatik gorako ikastaro bat eman da Mutrikuko Institutuan. Guztira, 10 ordu izan dira.

**EPEA**: 2016-2017 ikasturtea

**BALORAZIOA:** 2016-2017 ikasturtean, aurreko ikasturtean baino 3 ikasle gutxiago izan ditugu, baina 2014-2015ean baino 6 gehiago. Badirudi, beheranzko joera gelditu egin dela; hala ere, emandako orduak dezente gutxiago izan dira 2015-2016an baino. Taldeei dagokienez, aurten 21 izan ditugu, iaz baino bat gehiago. IRALEko talde bat izan dugu (iaz, hiru). C1eko astean 5 ordukorik ez da eman. Baina, *Gurasoak ere eskolara* kanpainarekin 60 orduko lau talde izan ditugu. Taldeetan ratioa handiagoa izan da.

IZENBURUA: <u>**IKASLEAREN PROFILA**</u>

**DESKRIBAPENA**: 2016/2017 ikasturteko ikaslearen profila ondorengoa da:

| **Sexua:** | |
|---|---|
| Emakumezkoak | 197 (%77,6) |
| Gizonezkoak | 57 (%22,4) |
| **Ikasketa maila:** | |
| Lizentziatuak | 52 (%20,5) |
| Diplomatuak | 35 (%13,8) |
| Magisteritza | 8 (%3,1) |
| UBI-LHII | 61 (24) |
| Eskola gradu. | 70 (27,6) |
| Beste | 28 (11) |

| **Lan egoera:** | |
|---|---|
| Lanean: | 177 (67,4) |
| Langabezian: | 77 (32,6) |
| **Adina:** | |
| 16 - 25 | 34 (%13,4) |
| 26 - 30 | 16 (%6,3) |
| 31 – 35 | 24 (%9,4) |
| 36 – 45 | 90 (%35,4) |
| 46 – 50 | 33 (%13) |
| >50 | 57 (22,4) |



**EPEA**: 2016-2017 ikasturtea

**BALORAZIOA:** Betiko joerari jarraituta, ikasleen profilari begira, ikasle gehienak, %77,6 emakumezkoak izan dira. Titulazioari erreparatuta, gehienak titulaziodunak (goi eta erdi mailakoa), eta batez besteko adina 36 – 50 urtekoa. Azken urteotan bezala, langabetuen kopurua altua izan da: %29,5.

**IZENBURUA:** <u>**HABEren AZTERTZAILEAK**</u>

**DESKRIBAPENA:** Urtero HABEk maila egiaztatzeko 2 deialdi egiten ditu, bata maiatza-ekaina aldera (deialdi itxia) eta bestea urria-azaroa aldera (deialdi itxia zein irekia) eta azterketa hauek zaintzeko eta zuzentzeko irakasleak behar izaten ditu. Eibarko Udal Euskaltegiak maila guztietan ditu aztertzaileak, honela banatuta: B1 mailan, Arantza Iriondo; B2 mailan, Xabier Gezuraga; C1 mailan, Nerea Azkarate eta C2 mailan, Nerea Beitia. A1 eta A2 mailetan ere, nahiz eta ebaluazio jarraitua egin, Sorkunde Juaristi eta Jon Sasiain dira horko aztertzaileak. Azterketa deialdi bakoitzaren aurretik Bateratze Saioak antolatzen ditu HABEk eta horietan parte hartzen dute maila guztietako aztertzaileek azterketak zuzentzeko orduan irizpide bateratuak izateko.




**EPEA:** 2016-2017 ikasturtea

**GASTUA**: Bateratze saioetara joateko egiten diren Km-ak.

**BALORAZIOA**: Komenigarri irizten diogu maila guztietan aztertzaileak izateari; alde batetik, gure ikasleei irizpideak eta aholkuak emateko eta bestetik, profesionalak garen aldetik, gure lanean etengabe eguneratuak egoteko. HABEren bateratze saioen ondoren, saiatzen gara gure artean, eta denon parte hartzearekin, antzeko saioak egiten, Eibarko Udal Euskaltegiko irakasleok maila guztien ikuspegi orokorra izan dezagun.

**IZENBURUA:** **PROPAGANDA BATZORDEA**

**DESKRIBAPENA:** Gipuzkoako eta Bizkaiko Udal Euskaltegi guztiek batera egiten dute propaganda ikasturte hasieran eta horren prestaketaz eta banaketaz TEMPO enpresa arduratu da ikasturte honetan. Batzorde honen zeregina da enpresak aurkeztutako kartelen artean ikasturte horretan erabiliko dena aukeratzea eta euskaltegiz euskaltegi jasotzea bakoitzak esku-orrietan jarri nahi duen informazioa, behar duen ale kopurua, uda-ikastarorako propaganda nahi duen ala ez , (euskaltegi guztiek ez baitute eskaintza hau egiten). Baita ikasleei oparitzat ematen zaizkien karpeta eta boligrafoak aukeratzea ere. Urtean 2 aldiz biltzen da eta bertako partaide dira ondorengo euskaltegietako zuzendariak: Eibar, Debabe, Bergara, Arrasate eta Leintz-Gatzaga.




**EPEA:** 2016-2017 ikasturtea

**GASTUA**: 1.315,47 euro

**BALORAZIOA**: Oso garrantzitsua da Udal-euskaltegi guztiek batera propaganda egitea, horrela irudi korporatiboa bultzatzen da eta gure arteko harremana sendotzen. Bestalde merkeago ateratzen da denok batera eginda. Ikasleek gustura hartu dute ematen zaien materiala.

IZENBURUA: <u>KANPO EKINTZAK</u>

**DESKRIBAPENA:** Ikasturtean zehar euskaltegiko jarduna osatzeko asmoz eta ikasleak euskaltegiko esparrutik kanpo euskara entzun eta erabiltzeko helburuarekin egiten diren ekintzak dira. Batzuk euskaltegiak berak antolatzen ditu, beste batzuk Euskara Sailak edo Kultura Sailak eskaintzen dituzte eta beste hainbat Eibarko talde eragile batzuek programatzen dituzte. Eskaintza aztertu egiten da eta ikastaldearen euskara maila kontuan hartzen da proposamena taldeetan zabaldu baino lehen, baldin eta ekintza hori eskola orduetan egiten bada. Bestelako ekintzen berri zabaltzen da eta ikasleak animatzen ditugu parte hartzera. Uda ikastaroan ez da kanpo ekintzarik antolatzen.



**EPEA:** 2016-2017 ikasturtea

| | |
|---|---|
| 2016ko URRIA | • "Teknologia berrien erabilera osasuntsua eta arriskurik gabea" Hitzaldia. ...eta kitto!ren egoitzan<br>• "Berbetan" programaren aurkezpena. Euskaltegian |
| 2016ko AZAROA | • Gaztañerre (apainketa eta informazioa). Euskaltegian<br>• "Halloween, Olentero, Karnabalak ... noruntz doaz neguko festak? Portaleako Areto Nagusian.<br>• Filmazpit: "Hanna Arendt". Portaleako Areto Nagusian |
| 2016ko ABENDUA | • Euskaren eguna: Bideo emanaldia (Portaleako Areto Nagusian) eta Euskararen loratégia (Untzagan)<br>• Gabonetako otarraren zozketa. Euskaltegian<br>• "Koadernoa Zuri" antzeslana. Coliseo antzokian.<br>• BADAKIT lehiaketa. Euskaltegian. |

| | |
|---|---|
| 2017ko OTSAILA | • "Argazki digital lehiaketa". AEK, Udal Euskaltegia eta Euskara Saila.<br>• San Blas opilan egiten. Portaleako sukaldaritza gelan<br>• Filmazpit: "Nola?". Portaleako Areto Nagusian<br>• "Postura egokiaren garrantzia" hitzaldia. ... eta kitto!ren egoitzan<br>• Antzerki jardunaldiak: "Zergatik, Jamil?". Coliseo antzokian. |
| 2017ko MARTXOA | • Antzerki jardunaldiak: "Treblinkara trena". Coliseo antzokian.<br>• Filmazpit: "Emakumea film laburrean". Euskaltegian<br>• Kontsumobide: "Merkataritza elektronikoa". Euskaltegian<br>• "Berbetan" programaren berri: ...eta kitto! Elkarteko kide bat eta bi berbalagun. Euskaltegian |
| 2017ko APIRILA | • "Euskaraz primeran" pin-aren aurkezpena. Euskaltegian<br>• "Jokoz kanpo" antzezlana. Coliseo antzokian.<br>• Armagintza museora bisita<br>• "Bularretik mintzora" hitzaldiak. Portaleako Areto Nagusian |
| 2017ko MAIATZA | • Kontsumobide: "Erosketak: bermeak eta itzulketak" eta "Etxearen alorrean energia hornidurei buruz jakin behar duzuna". Euskaltegian<br>• Filmazpit: "Nire ahizpa perfektua". Portaleako Areto Nagusian.<br>• Armagintza museora bisita<br>• "Desoxirribonukleiko" antzeslana. Coliseo antzokian. |
| 2017ko EKAINA | • Armagintza museoko katalogo berriaren aurkezpena. Marina Barrena. Euskaltegian.<br>• Filmazpit: "Short term 12". Portaleako Areto Nagusian<br>• BADAKIT lehiaketa. Euskaltegian.<br>• AKEBAI plataformak antolatutako GUINNESS ekitaldia. |

**GASTUA**: 0

**BALORAZIOA**: Orokorrean ona izan da. Baina beti kontuan hartu behar da, ekintza batzuetan ikasleak berak hala nahi duelako parte hartu duela eta beste batzuetan irakasleak edo taldeak bultzatuta; azken hauetan normala da denon satisfazio maila berdina ez izatea.

IZENBURUA: <u>LIBURUTEGI ZERBITZUA</u>

**DESKRIBAPENA:** Euskaltegiak ikasleen eskura jartzen du liburuen mailegu zerbitzua. Euskaltegian matrikulatuta dagoen ikasle orok du zerbitzu hau erabiltzeko aukera. Ikasleak liburua aukeratzen du, batzuetan irakasleak gomendatuta eta beste batzuetan bere gustuz, eta dagokion fitxa bete ondoren etxera eraman dezake. Liburua bueltatzeko epea 3 hilabetekoa da. Eskaintzen diren liburu gehienak eleberriak dira; izan ere, hauek dira errazen irakurtzen dituztenak. Urtero liburu berriak erosten dira, argitaletxeen nobedadeak ikusi eta gero edota irakasle edo ikasleren batek gomendatuta.




**EPEA:** 2016-2017 ikasturtea

**GASTUA**: 1.092,34 euro

**BALORAZIOA**: Ikasleek eskertzen dute zerbitzu hau; izan ere, Udal Liburutegiak liburuak irakurtzeko eskaintzen dien epea motza da ikasle askorentzat. Eta gainera liburu askok eta askok, paper batean, liburu barruan, ikasleen iritzia dute idatzita. Ikasturte honetan 56 liburu erosi dira, ikasleek 151 aldiz erabili dute mailegu zerbitzu hori eta 13 liburu daude erreklamatuta itzuli ez direlako.